ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko ekainaren 21a > Astelehena > VII. urtea > 282. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 urte www.goiena.net TOKIKOM



"Artrosiarekin batera, osteoporosia da gurean gaitz metabolikorik zabalduena"
**Iñigo Etxebarria** Debagoieneko Ospitalea > 08

**G2a** Arrasateko moda diseinatzaileen desfilea > 29

**BERGARA** 30 bat lagun Seminarioko lanak ezagutzeko bisita gidatuan > 13

**ARRASATE** Eguenean estreinatuko dute nagusiek Etxaluze eraikina > 14

**TXIRRINDULARITZA** Leire Olaberria azkarrena, Osintxuko emakumeen proban > 22

**POLITIKA** > HITZARMEN ESTRATEGIKOA

# EA eta ezker abertzalearen arteko ituna

**ADOSTASUNA** Xabier Zubizarretaren ustez, iritsi da bide bateratua egiteko momentua

**ZABALA** Pello Urizarrek uste du alderdi gehiagok egingo dutela bat > 07

**TEKNOLOGIA** > AUTOAK

## Debagoienak badu auto elektrikoa

Mondragon Taldeak City Car modeloa aurkeztu du > 02-03

**ELKARTASUNA** > JAIALDIA

## Obena baserria jasotzeko

Domekan izango da Oleta auzoan, kaltetuen alde > 11

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38
**Asteburuko albuma** > 39

**OSASUNA** > NEURRI BERRIA

## Anbulatorioak itxita, haur gehiago ospitalean

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko anbulatorioak zapatuan ixteko erabakiaren ondorioz, ohi baino jende gehiago joan da ospitalera, haurrak gehienbat. > 07



**EURIA** Mutiko arrasatear bat zerura begira, eguraldiak zer egingo. JOSETXO ARANTZABAL

## Arrasateko haur danborrada, uretatik pasata

Eguraldi txarrak Arrasateko haurren danborrada zapuztu zuen zapatuan; ohi baino ibilbide laburragoa egin behar izan zuten, euriaren eraginez: Jokin Zaitegi plazako aterpean kantu bi jo, eta zuzenean plazara joan ziren. 240 neska-mutiko inguruk parte hartu zuten, zazpi konpainiatan banatuta. Eguaztenean, San Juan bezpera, helduen txanda izango da. > 12

Goiena kluba
Realeko motxila opari. Nahi?

Zoaz 2. orrialdera

Goiena kluba
Abantailaz betetako kluba!
EKAINEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

REALEKO GORRO ETA BUFANDA
Bidali KLUBA GORROA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

REALEKO MOTXILA
Bidali KLUBA MOTXILA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

MUNDUMIRAKO MATERIALA
Bidali KLUBA MUNDUMIRA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

UMEENTZAKO PUZZLEA
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

SARI NAGUSIA
APIRILA-EKAINA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN
• Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
• Basetxeta Auzoa. Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
• *www.nekatur.net/txopebenta*
• *www.toprural.com*
Maiatzean 20 urte beteko ditugu; Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

**TEKNOLOGIA** > AUTOMOBILGINTZA

# Debagoienak ere sortu du bere automobil elektrikoa

**MONDRAGON** City Car modelo berria aurkeztu zuen Mondragon Automocionek, eta mugikortasun iraunkorreko beste proiektu batzuk

**ETORKIZUNA** Debagoieneko adituek argi daukate automobil elektrikoa eta hibridoa etorkizuna direla, eta ibarrarendako aukera bat

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Krisiaren aldapan gora egiteko, baliteke Debagoiena auto elektrikoan igotzea. Mondragon Taldeak bere apustu estrategikoa aurkeztu zuen egubakoitzean. *Auto elektrikoa/mugikortasun iraunkorra* izenburuarekin, taldeko Mondragon Automocion kooperatibak bere City Car modeloa aurkeztu zuen Garaia Berrikuntza Gunean, korporazioko presidente Jose Mari Aldekoa eta Mondragon Automocioneko presidente Jose Ramon Goikoetxearen eskutik.

"Azken urte eta erdian mugikortasun iraunkorraren arloan Mondragonek egin duen lanaren erakuslea da, Automocionen produktu, jarduera eta negozio berriak garatzea ahalbidetuko duena", esan dute arduradunek.

Mondragonek asmatutako hiriko ibilgailu elektrikoak 45 kw-eko potentziako motorra dauka, 5 segundoan 0tik 50 km/h abiadurara iristen da, 105 km/h gehienezko abiadura hartzen du eta 80 kilometroko autonomia dauka. Ibilgailuaren diseinua egiterakoan, bidaiarien segurtasuna izan da jarraitutako irizpiderik garrantzitsuena. Bere aurrealdeko egitura bereziki pentsatua dago kolpeak xurgatzeko, eta serieko 9 airbag dauzka. Lau pertsonarentzako pentsatutako autoa da eta, atzealdeko maletategiaz gain, aurrealdean ere maletak eramateko leku osagarria dauka. Taldeko arduradunen esanetan, "hirian ibiltzeko oso erabilgarria" da autoa.

**ELKARLANA**

Mondragon Talde barruko hainbat enpresaren artean pentsatutako eta garatutako lehen City Carra da honakoa. Mondragon Automocion izan da burua, eta Edertek, Koniker eta MTC teknologia zentroak, Mondragon Eskola Politeknikoa eta LKS Diarak osatu dute taldea. Proiektuan Lotus Engineering-en esperientzia baliatu dute.

> **Mondragonen City Car modeloa oso garrantzitsua da korporazioarendako: Mondragon Automocionen negozio berriak garatzea ahalbidetuko du**

> **Fagor Ederlanek eta Lotus Engineering-ek akordioa egin dute eko-motor sorgailu bat garatzeko eta fabrikatzeko; aukera berri bat da**

City Car modelo propioa ez ezik, hainbat proiektu zehatz ere aurkeztu zituzten. Mondragon Taldeko ordezkarien hitzetan, "horrek sendotu egiten du Automocionen erreferentziazko posizioa sektorean eta mundu osoan".

**MOTOR EKOLOGIKOA**

Bestalde, joan den astean bertan, Fagor Ederlanek eta Lotus Engineering-ek akordioa sinatu zuten eta eko-motor sorgailu bat garatzeko giltzarriak identifikatu zituzten, ondoren fabrikatzeko. Akordioak aukera emango dio Fagor Ederlani motor horiek automobilgintzaaren sektorerako diseinatu, fabrikatu eta merkaturatzeko negozio berri bat garatzeko. "Lotus Range Extenderra motor ekologiko berri bat izango da etorkizuneko automobil elektrikoentzako. Motor horrek egungo automobilen $CO_2$ jarioak nabarmen murriztea



City Car modeloak kanpotik duen itxura erakusteaz bat, bere osagaiak ere jendaurrean ipini gur

ahalbidetuko du", azaltzen dute Mondragon Taldeko ordezkariek.

**CEGASA, BATERIAK EGITEN HASIA**

Automozioko joera berriek etorkizun oparoa ekar dezakete Debagoienera: hainbat enpresa eta ikertzaile dabiltza horretan lanean.

Automobilak eurak egiteaz gain, horiek elikatuko dituzten bateriak dira beste sektore handi bat. Oñatiko Cegasa enpresa litio ioizko prototipoa egiten hasi zen 2009 bukaeran, eta, Cegasa Taldeko Industria-Ondasunen Negozioko zuzendari Iñaki Madinak dioskunez, "orain lehenengo battery pack direlakoak, autoaren bateriak" egiten hasi dira. Eurek garbi daukate: "Auto elektrikoa badator. Teknologia gertu dago; kontzientzia ere bai".

Madinaren iritziz, City Car izen generikoa duten auto motak "egokiak izan daitezke hiri barruan ibiltzeko; izan ere, auto elektriko purua, hibridoa ez dena, hemendik eta bost urtera arte, gutxienez, ez du izango 200 kilometrotik gorako energia-autonomia". Gaur egun "populazioa hirietan" batzen denez, City Car horiek etorkizun handia dutela ondoriozta daiteke.

Sektore horrek "enplegua sortuko du, ziur", Debagoienean, Madinaren ustetan. Baina, kontuz: "Lehenengo, inbertsioak egin behar dira". Edozein modutan, "epe luzerako apustua" dela gogorarazten du.

**UDAL BAT, INTERESATUTA**

Automobil elektrikoek autonomia txikia dute, ohikoekin alderatuta; gainera, kargatzeko 20-30 minutu behar dute; eta har dezaketen gehieneko abiadura ere ezin daiteke pareka ohiko erregaiz elikatzen diren autoenekin. Ezaugarri horiek oso egoki egin dezakete premia jakin batzuk dituzten gidariendako, eta bere merkatu-nitxoa sortu.

Horretaz asko dakite Debagoienean horrelako autoak saltzen dituzten Arrasateko Enmedio dendakoek. Horko Eneritz Lezetaren esanetan, "gertuko ibilgailua izateko pentsatutako dago; guk saltzen dugun modeloak 70 kilometroko autonomia dauka, eta 100 km/h har ditzake. Hortaz, oso egokia da banaketak egin behar dituzten enpresendako, mezulariendako, udal zerbitzuetarako…" Eta Eskoriatzako Udalak badauka horrelako auto bat erosteko asmoa. Pedro Lasagabaster alkateak dioenez, "kalegarbiketa zerbitzurako" erosi nahi dute: "Dirulaguntza lortuz gero, erosiko dugu. Gutxiago kutsatzen du eta eredua eman behar dugula uste dut".

Eskoriatzakoa, oraingoz, bailarako udal bakarra izango litzateke auto berriaren aldeko apustua egiten. Eneritz Lezetaren esanetan, "erakundeek diote ekonomia txarto dagoela, ez dagoela azpiegiturarik, ez eta bateria kargatzeko lekurik… Kontzientziazio maila handia behar da, bestalde. Hori bai, nik uste dut herritarrek, partikularrek badutela kontzientzia hori".

**EUSKAL HERRIA, ONDO KOKATUTA**

Ikerlaneko Fran Blancok elektraindarra gordetzeko sistemak ikertzen ditu, besteak beste, garraioetan aplikatzeko. Bere esanetan, "teknologia mota hauetan, Japoniak aurrea hartu zuen, baina Europako eta AEBetako auto-egileak badabiltza lanean; laster, auto modelo berri asko ikusiko ditugu, eta aurreikuspenak dira 2020rako salmenten



Jose Ramon Goikoetxea eta Jose Mari Aldekoa, City Car modelo berriaren alde banatan. MONDRAGON AUTOMOTION

%10 auto elektrikoenak edo hibridoenak izatea; hori zati handi bat da". Eta horrek "azpiegitura handia eskatzen du". Hala, Hego Euskal Herrian eta Espainian, "kargatzeko 300.000 gune egin beharko lirateke bakarrik 2020an".

Horretara ailegatzeko, prozesua graduala izango dela uste du Blancok. Baina baldintzak behintzat ikusten ditu: "Eusko Jaurlaritzak oso aldeko jarrera dauka; Espainian, Europan… ere alde daude. Pixkana-pixkana sartuko da. Beharbada 2020. urtean modu masiboan erosten hasiko da jendea".

Fran Blancoren ustez, Euskal Herria "oso ondo kokatuta dago teknologia garatzeko eta balore itsatsia sortzeko. Bai, badago negozioa sortzeko aukera handia. Hemengo industrian eragin handia izan dezake, eta industria birmoldatzen lagun dezake".

LEHEN PAUSOA

## Zeus izeneko autoa izan zen aurrekaria

Mondragon Taldeak 1998an egin zuen auto elektrikoa lortzeko lehen saiakera. Urte hartan aurkeztu zuen Zeus izeneko automobil prototipoa. Korporazioak eta Iberdrolak finantzatu zuten proiektu hura, eta bost ale egin zituen Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Elektronika Saileko talde batek, Mikel Sanzberro irakaslea buru zela. Bi lagunendako lekua zuen eta orduko 90 kilometroko abiadura har zezakeen. *Arrasate Press*-en 412. zenbakiko azala izan zen.




Zeusen gaineko azala. GOIENKARIA

ESANAK

### "Sektore horrek enplegua sortuko du Debagoienean, ziur; baina inbertsioak behar dira lehenengo"

**Iñaki Madina**
> Cegasako arduraduna

### "Euskal Herrian auto elektrikoendako teknologia garatzeko eta negozioa sortzeko aukera handia dago"

**Fran Blanco**
> Ikerlaneko aditua

DATUA

# 80

**KILOMETRO**

Mondragon Automocionek aurkeztu duen City Car modeloak 80 kilometro egin ditzake kargatzeko beharra izan arte. Orduko 105 km har ditzake, gehienez.



ra izan zituzten sortzaileek; argazkian ageri den txasisa, esaterako. MONDRAGON AUTOMOTION



**INGURUMENA** > ZABOR BILKETA

# Atez atekoarekin herri txikietan hastea aztertzen dihardute

Elgetako alkateak dio atez atekoaren alde dagoela, baina "ezinezkoa" ikusten du agintaldia bukatu aurretik Elgetan martxan ipintzea

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Mankomunitateko Ingurumen Batzordeak onartu zuen ekainaren 9ko batzarrean atez ateko zabor bilketaren alde egitea: ezker abertzalea eta Aralar alde azaldu ziren; EAJ alderdiak, berriz, bosgarren edukiontziaren aldeko apustua egin zuen.

Jose Mari Igartua (EAJ), Oñatiko Azpiegitura eta Ingurumen zinegotziak zera dio: "Epe luzera, atez atekoa garestiagoa da eta emaitzak antzekoak dira. Gainera, Udal bakoitzari dagokio gura duen zabor bilketa modua aukeratzea". Mankomunitateko Ingurumen Batzordeak atez atekoarekin Antzuolan eta Elgetan hastea proposatzen du. Bestalde, joan zen astean egin zen Mankomunitateko Ohiko Gobernu Batzarra, baina gaia bertan laga zuten, hurrengo batzar batean aztertzeko. Litekeena da, ez ohiko batzar bat deitzea aste bi barru gaiaren gainean eztabaidatu eta erabaki bat hartzeko.Horixe azaldu digu Mikel Etxaniz (Aralar) Bergarako Ingurumen zinegotziak.

Pedro Iturbe Antzuolako alkatearen ustez, herriarendako guztiz bideragarria eta beharrezkoa da atez ateko bilketa. "Antzuolako alderdi gehienak alde gaude eta eskualdetik hasita Gipuzkoa osora zabaldu beharko litzatekeela uste dugu". Helburua, birziklatzea eta zabor gutxiago sortzea dela azpimarratu du.

Oxel Erostarbe Elgetako alkateak, ordea, dio presa ez dela lagun ona erabakiak ondo hartzeko: "Atez atekoa bultzatu nahi dugu herritarrekin batera eta horrek denbora eskatzen du. Gauzak ondo egin gura ditugu eta herriari hitza eman, horrek denbora eskatzen du eta ezinezkoa da agintaldia bukatu aurretik Elgetan atez atekoa ipintzea. Hala ere, hurrengo asteetan landuko dugu gaia Udalean talde bakoitzak bere iritzia eman dezan".

Ibarreko herri guztietan atez atekoa ipintzearen alde dago Aralar. "Horrek, plangintza estrategikoa egitea eskatzen du, ekintza plana eta bideragarritasun txostena. Hiru urtean egin ez dena hiru hilabetean egin gura da eta ez zaigu aukera ona iruditzen". Bestalde, PSE-EEko zinegotzi eta alkateek bosgarren edukiontziaren aldeko hautua egin dute.

ESANAK

**"Atez atekoa bultzatu nahi dugu baina herritarrekin batera eta hitza emanda. Presa ez da ona erabakiak hartzeko"**

**Oxel Erostarbe** > Aralar

**"Epe luzera lortzen diren emaitzak aztertu behar dira. Garestiagoa da atez ateko bilketa eta, emaitzak, parekoak"**

**Jose Luis Igartua** > EAJ

**ELKARTASUNA** > PRESOAK

# 'Jose Luis Elkoro Libre' legeztatzea, abian


Zapatuan, Bergarako plazan egon zen sinadura emateko aukera JOSETXO ARANTZABAL

Eguaztenean, 'Jose Luis Elkoro Libre' plataformaren legeztatzea adostu zuten batzarrean

**NAROA ODRIOZOLA** > BERGARA

Ekainaren 16an, *Jose Luis Elkoro* Libre plataformaren hirugarren batzarra egin zuten Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Bertan, orain arteko lanaren balorazioa eta iritzi trukea egiteaz gain, eginkizun berriak finkatu zituzten.

Bileran, plataforma legeztatzea adostu zuten eta horretarako legeak ezartzen dituen betebeharrak osatu zituzten. Hala ere, batzarrera joan ezin izan zirenendako mahai bat jarri zuten ekainaren 17an Irizar kalean, plataforman izena emateko aukera izateko. Gauza bera egin zuten zapatuan, ekainak 19, Bergarako plazan.

**AURRERANTZEAN ERE EKIMENAK**

Ekainerako ez ezik uztailerako ere zenbait ekintza antolatu dituzte. Besteak beste, uztailaren 2an bizikleta martxa egingo dute Bergarako plazatik abiatuta eta herrian buelta bat emanez. Horrez gain, uztailaren erdialdean *Jose Luis Elkoro* Libre plataforma talde legal moduan aurkeztuko dute jendaurrean. Gainera, irailean ere ekimenen bat egongo da, baina oraindik ez dute guztiz finkatu zer egingo den.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA
X. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.com
Arauak: www.pamiela.com




## ELAren batzarra eta agerraldia, hilaren 29ko greba dela-eta

Deba eskualdeko ELA sindikatuko ordezkariek batzarra eta manifestazioa egin zituzten egubakoitz eguerdian, Oñatin, hilaren 29rako deitu duten greba orokorraren harira. Eskualdeko enpresa garrantzitsuenetako 150 lagun inguru batu ziren.



LANDER MUÑAGORRI

> UDALEKUAK

## Txikitxoek izena emateko aukera dute Getariara joateko

Txatxilipurdi, Loramendi eta Jardun euskara elkarteek elkarrekin antolatu dituzte aurtengo udalekuak. 10 eta 12 urte bitarteko gaztetxoendako plaza libreak geratzen dira oraindik. Uztailaren 1etik 8ra bitartean, Getariako Askitzu auzora joan nahi dutenek izena eman dezakete, hortaz. 250 euroko kostua dauka (familia ugariko kide izanez gero, %5eko deskontua egingo da).

Bestalde, *Kosta ala Kosta* udaleku ibiltaria egiteko plazak beteta daude. Uztailaren 5etik 16ra, Garaion hasi eta Zarautzera joango dira 20 bat gazte (14 eta 16 urte bitartekoak). Ibilbidean barrena sorpresak izango direla aurreratu digu antolatzaile lanetan dabilen Lander Juaristik. "Arabatik hasi eta Gipuzkoan barrena egingo dugun ibilbidea, abentura bat izango da", gaineratu du Juaristik.

> GIDARI ELKARTEA

## Leintz Ibarreko Gidari Elkartea, 53 urtez martxan

1957. urtean Arrasateko Lorentxo tabernan sortu zuten Leintz Ibarreko Gidari Elkartea Lorentxo Uribarrik, Rikardo Segurak, Julian Aierbek eta Felix Errastik. Gidariak zirenez, elkartea sortzea erabaki zuten elkarri laguntzeko; bereziki lankideren bat hiltzean alargunari laguntzeko.

Lau lagunek sortu zuten arren, egun 35 kide dira elkartean, guztiak gizonezkoak. "Gizonezkoak bakarrik gaude, emakumezkoak ez direlako apuntatu", baina ez da soilik gizonezkoen elkarte bat.

Bertako kideak taxi, kamioi zein autobus gidariak eta autonomoak dira. Egoitzarik ez duten arren, noizbehinka elkartzen dira bazkariak, ospakizunak eta mezak egiteko. Ekainaren 12an, adibidez, Udalan bazkaria egin zuten eta Kepa Otxoa elkarteko kidea omendu eta Jose Meabe gogora ekarri zuten.



Naheel Daoud eta Mahmoud Zawre, hitzaldia hasi aurretik. MIREIA BIKUÑA

Mahmoud Zawre eta Naheel Daoud > Palestinarrak

# "Flotillaren erasoarekin hanka sartu du Israelek eta ordaindu egin beharko du"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Aralarren Ezkerraberri Fundazioak *Palestina: blokeo baten historia* delako hitzaldia egin zuen eguaztenean Arrasateko Kulturaten. Herri-erresistentzia koordinatzeko batzordeko kide Mahmoud Zawre eta Emakumeen Batzordeko kide Naheel Daoud izan ziren hizlariak.**

**Nola bizi izan duzue Israelek Askatasunaren Flotillari egindako erasoa?**

Mahmoud Zawre: Askatasunaren Flotilla elkartasun mugimendu batetik sortutako ekimena da. Kanpotik, mugatik bestalde jaso dezakegun laguntza bakarra da. Muga guztiak israeldarrek kontrolatzen dituzte, eta ezin dugu ezer sartu: sendagaiak, janaria, eskolarako materiala... Horregatik guztiagatik, Israelen erasoa hondamena da guretako. Erakusten du zein den Israelek duen politika eta jarrera. Erakusten du Israelek ez dituela eskubideak errespetatzen. Erasoa nazioarteko uretan egin dute eta zibilak hil dituzte. Lotsagarria da.

Israelek hanka sartu du barruraino eta ordaindu egin beharko du. Gobernuek ikusi behar dute Israel nolakoa den.

**Nazioarteko Komunitateak gogor salatu du erasoa. Babestuta sentitu zarete?**

M. Z.: Flotillari egindako erasoa inflexio-puntua izan da. Israelek Nazioarteko Komunitateari eraso egin dio, ez bakarrik zibil palestinarrei.

Nazioarteko Komunitatearen salaketak erakusten du ezin dugula Gazako blokeoarekin jarraitu. Aurrerapausoak ematekoordua da. Gobernuek ez baditutze zuriaren eta beltzaren arteko ezberdintasunak ikusten, herritarrok erakutsi beharko diegu zeintzuk diren.

> **"Askatasunaren Flotilla elkartasun mugimendu batetik sortutako ekimena da"**
>
> **"Garbi dago zeintzuk diren gatazkako biktimak eta zeintzuk diren erasotzaileak"**
>
> **"Palestinako emakumeen egoera oso txarra da, tamalgarria"**

Israelek Flotillari egindako erasoagatik Palestinako ume asko esne barik geratu dira. Halako bideak beharrezkoak dira.

**Israelen azken erasoa alde batera utzita, zein da Palestinan bizi duzuen egoera?**

M. Z.: Orain dela urtebete Israeletik jaso genuen erasoaren ondoren, azpiegitura barik gaude. Ospitaleak, eskolak, etxeak... suntsituta ditugu. Israeldarrek indarkeria erabiltzen dute gure kontra, eta blokeoarendako irtenbide baketsu bat topatzeko aukera guztiak suntsitu.

Gainera, israeldarrek harresi bat eraikitzen dihardute. Hori horrela, bizilagunak etxeetatik bota dituzte harresia egiteko eta abeltzainak lursail barik geratu dira.

Palestinan herri-erresistentzia mugimendua martxan jarri dugu. Ez dugu indarkeriarik erabiltzen, eta helburua da harresiaren eraikuntza gelditzea. Bestalde, 62 urte bete dituen blokeoarekin bukatu nahi dugu.

Gure agintariek eta beste herrialde batzuetako agintariek ez dute blokeoa konpontzeko erabakirik hartzen. Hortaz, gu hasi gara hori lortzeko ahaleginean.

**Ze ekintza egiten ditu herri-erresistentziarako mugimenduak?**

M. Z.: Astero elkarretaratze isila egiten dugu eta harresia egiten jarrai ez dezaten aldika-aldika ekintzak egiten ditugu. Palestinarrok etxe eta lursail barik gera ez gaitezen.

Bestalde, mugimendu honek nazioarte mailako beste erakunde batzuen babesa lortu du.

Garbi dago Israelen eta Palestinaren artean gatazka badagoela. Garbi dago zeintzuk diren biktimak, zeintzuk diren okupazioan daudenak eta zeintzuk diren erasotzaileak eta eskubideak errespetatzen ez dituztenak.

**Nolakoa da emakumearen egoera Palestinan?**

Naheel Daoud: Oso txarra, beste edozein palestinarrena baino askoz txarragoa. Gure senarrak atxilotzen edo hiltzen dituzte, eta guk zaingu behar ditugu umeak. Ezin dugu ikasi, gure alabek ez dute eskolara joateko biderik...

etxeko leihotik


Iker Barandiaran > 'ibarandiaran@goiena.com'

## Reala ala birtuala, baina benetako asaldura

Zergatik ez da Reala Arrasatera etorriko igoera ospatzeko egingo duen biran? galdetu zidaten aurreko astean batek baino gehiagok kazetariok ei daukagun orojakile uste horretaz baliatuta.

Harrituta nago hainbat hedabidek Realari azken egunotan egin dioten jarraipenarekin eta herritarren asaldurarekin. Gogora ekarri dit Hegoamerikako zenbait herrialdetan futbola nola bizi duten, hil ala biziko kontu bat balitz moduan. Erraz esan nezake, herritar askok Realaren eta Baskoniaren lorpenak ospatzeko kaleak zelan hartu dituzten ikusita, beste edozein arazori baino garrantzia handiagoa ematen diogula horri: berdin dio ekonomia krisiak, egoera politikoak eta beste gauza gordin askok. Modu berean, badakit norberaren ezinegona arintzeko modua ere badela.

> **"Kirola eta politika nahastea gu baino zaharragoa da honezkero"**

Bestalde, Anoetan bertan Realeko jokalari pare batek presoen gaineko aipamenen bat egin zuten eta zenbait jarraitzailek hori kritikatu dute, kirolarekin politika nahastea dela esanez. Zergatik uste duzue Gipuzkoan gehien saltzen den eskuin aldeko egunkariak Realari halako jarraipena egiten diola? Hor ere salmentak eta politika nahasten dira erabat. Baita, egunotan kirol taldeen inguruan hainbat politikari ikusten ditugunean ere. Edo, bestela esanda, Suitzako selekzioak hainbeste jarraitzaile ditu gure artean? Politika eta zirkoa, biak tartean.

**> Hegoamerikako herrialdeetako jendea futbolarekin beste guztia ahazten dutelako kritikatu izan dugu, baina azken aldian inguru horretan erakutsi digute herritarrek irakurri, hezi eta aldaketen alde kontzientziatuta daudela.**

**> Aterako luke krisiaren kontrako protesta batek gure artean hainbeste jende kalera? Ez dut uste, eta norbaitek nire galdera txarto hartuko badu ere, guztioi pentsarazteko moduko erreflexioa dela uste dut; artalde itxura daukagulakoan nago.**

ELKARTASUNA > EKITALDIAK

## Hainbat GKEren ekintzak ekainean eta uztailean

Besteak beste, azoka eta hitzaldia egingo dituzte Arantzazun eta Aretxabaletan

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

Gobernuz kanpoko hainbat erakundek ekintzak antolatu dituzte ekainerako eta uztailerako. Besteak beste, azoka eta hitzaldia egingo dituzte Arantzazun eta Aretxabaletan.

Domekan, hilaren 27an, Debagoieneko Bidezko Merkataritza Erakundeak bidezko merkataritzako produktuak saldu-ko ditu Arantzazun.

**INAZIO GALDOS JESUITA**

Bestalde, uztailaren 8an Inazio Galdos jesuitak hitzaldia emingo du Aretxabaletako Arkupen, 19:00etan. Hitzaldiaren gaiak bi izango dira. Alde batetik, Hiruatx elkarteak Gujeraterekin duen elkarlana aurkeztuko dute. Eta, beste alde batetik, adivasi kulturako nekazaritzaren garapena eta hezkuntza aztertuko ditu Galdosek, batez ere, egungo egoerari erreparatuz.

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan. Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***



Xabier Zubizarreta eta Pello Urizar arrasatearrak, Monterron parkean. GOIATZ ARANA

**POLITIKA** > EA ETA EZKER ABERTZALEAREN ARTEKO ITUNA

# "Akordioa soilik biren artean egitea baino hobe da beste alderdien babesa ere lortzea"

Euskal estatua lortzeko helburuz, alderdi biek hitzarmen estrategikoa sinatu zuten atzo Bilboko Euskalduna jauregian

**GOIATZ ARANA**> BERGARA

Ikusmina piztu zuen atzo EAk eta ezker abertzaleak sinatutako hitzarmenak, duen edukiarengatik eta aurrerantzean ekar ditzakeen ondorio politikoengatik. 300na alderdikide eta nazioarteko ordezkari politiko ugari batu ziren ekitaldian.

**HAUTESKUNDEETATIK HARATAGO**

Sinatzaileek ez dute baztertzen hauteskundeetan lankidetzan aritzeko aukera, baina akordioa horietatik haratago doala diote: "Hitzarmen estrategikoa da, luzera begirakoa, eta euskal estatu baten sorrera arte elkarlanean aritzea du jomuga", azaldu digu Xabier Zubizarretak, ezker abertzalearen izenean. "Hauteskundeen gainetik urratsak ematen joan behar dugu, gizartearen babesa hautestontzietan lortuko badugu ere", gaineratu du Pello Urizar EAko presidenteak.

Akordioak ezberdinen artean egiten direlako, kasu honetan ere, nork bere analisi propioa egin eta desberdintasunen gainetik, ondorio bateratu bat atera dute: "Frantziar eta Espainiar estatuek ez digutenez aukerarik ematen –ez eta emango ere– gure eskubide demokratikoak gauzatzeko, gu ere estatu politikak egiten hastea da irtenbide bakarra. Horrek esan nahi du independentziaren aukera posible egingo duen egituraketa juridiko-politiko berri bat lortu behar dugula", dio Zubizarretak. "Abertzaleok ez bagara gai gure artean adostasunera heltzeko, ez ditugu lortuko herri bezala ditugun eskubideak; atzokoa esparru berri horretara ailegatzeko lehen pausoa izan zen", azaldu digu Urizarrek.

**AKORDIOAREN ZABALPENA**

Beste alderdi batzuk ere akordio honen barruan tokia dutelakoan daude: "Apustua nazio mailan egingo badugu, abertzale denok egin behar dugu apustua; uste dugu Aralar eta Alternatiba hemen egoteko aukerak badaudela eta EAJri denbora eman beharko diogu", adierazi digu EAko presidenteak. "Sozialistek historia errepasatu" beharko luketela dio Zubizarretak, "Hego Euskal Herria unitate politiko bakar moduan definitu" eta "unitate horri dagokion gobernu bateko kide izan" zirelako. Pello Urizarrek positiboki baloratu ditu PSE-EEko presidente Jesus Egigurenek presoei eta Batasunaren legeztatzeari buruz esandakoak, "gertuago daudelako gure irakurketatik alderdi sozialistarenetik baino". Eusko Jaurlaritzari dimisioa eskatuko lioke Zubizarretak; eta Urizarrek besteen lana hainbeste kritikatu beharrean ekarpenak egiteko. Madrilgo gobernuak, Irlandako bake prozesutik ikasi beharko lukeela ere uste du Urizarrek.

**INDARKERIA**

ETAri dagokienez, bestalde, "Bruselako Adierazpenean jasotako eskakizunei erantzuteko konpromisoa hartu zuela eta erantzuna noiz etorriko zain" dago EAko presidentea; "aldiz, atentaturen bat egingo balu, ezker abertzaleak –alderdiko oinarri zabal batek adostuta– hasitako ibilbidearen kontrako eraso bat litzatekeela" uste du. Xabier Zubizarretaren hitzetan, "iritsi da momentua Euskal Herrian joko politiko huts eta garbia egiten hasi eta alde bietako biolentzia betiko bukatzeko". "Atentatu batek harremana zailduko lukeela" onartu arren, ez dute uste akordioa arriskuan jarriko lukeenik.

ESANAK

**"Abertzaleok ez bagara gai gure artean adostasuna lortzeko, ez ditugu lortuko herri bezala ditugun eskubideak"**

**Pello Urizar** > EAko presidentea

**"Iritsi da momentua Euskal Herrian joko politiko huts eta garbia egiten hasi eta alde bietako indarkeria bukatzeko"**

**X. Zubizarreta** > Ezker abertzalea

**OSASUNA** > ZENTROEN ITXIERA

# Haur gehiago zapatuan ospitalean, anbulatorioak itxi izanaren ondorioz

Debagoieneko Ospitalean lasai joan zen zapatu goiza, bi erizainen errefortzuarekin

**M.M./G.A.** > BERGARA

Jende dezente aurkitu genuen zapatu goizean Debagoieneko Ospitaleko larrialdietarako itxarongelan. Horrelako tokietara pazientziaz joan behar delaeta, lasai zeuden gehienak, baina entzuten ziren itxaroteaz aspertuta zegoen mutiko baten negar hotsak ere. Belen Balzategi Ospitaleko guardiako ikuskatzaileak adierazi zigunez, lasai joan zen goiza: "Espero genuen ohi baino jende gehiago etorriko zela eta, arazorik ez izateko, bi erizainekin indartu dugu zerbitzua; pediatra bat eta sendaketak egiten dituen erizain bat gehiago izan ditugu gaur, eta ondo joan da dena. Edozein kasutan, astelehenean datu guztiak esku artean izan arte, ez dago balorazio orokor bat egiterik".

**BERGARAN ETA ARRASATEN**

Debagoienean, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko anbulatorioei eragingo die Osakidetzak duela bi egun indarrean jarritako neurriak; aurrerantzean, itxita egongo dira zapatuetan. Bergarakoak, aldiz, normaltasunez jarraituko du. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, Bergarako osasun zentroan eta eskualde ospitalean zentralizatuko dute, beraz, kontsulta zerbitzua.

Orain arte, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko anbulatorioek goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu biak arte ematen zuten zerbitzua zapatuetan; baina aurrerantzean ospitalean artatuko dituzte horiek guztiak.

Bergaran, berriz, etengabeko arreta gunea dute eta herrikoei ez ezik, elgetarrei eta antzuolarrei ere ematen zieten zerbitzua; hala egiten jarraituko dute aurrerantzean ere.

Leintz Gatzagako eta Aramaioko bizilagunek ere ez dute aldaketarik sumatuko: orain arte, zapatuetan ez zuten herrian bertan osasun zerbitzurik, Arrasateko ospitalera joaten ziren zerbait behar izanez gero, eta hala egiten jarraitu beharko dute.

**ERANTZUNA KRITIKEI**

Blanca Roncal PSE-EEko Osasun bozeramaileak adierazi duenez, lehen arreta zerbitzuen kalitatea "mantendu" egingo da. Beste alderdi politikoen jarrera kritikatu du Roncalek, "alarma soziala piztu eta gobernua ahuldu" nahi dutelako. Roncalen arabera, "inork" ez du osasun alorreko berrantolamenduaren aurka egiteko arrazoirik eman. Hala, arrazoi "erabat alderdikoiak" ikusten ditu kritiken atzean.

ERABILTZAILEEN ESANAK




**Asun Goikolea**
Eskoriatza

**"Zapatu goizetan anbulatorioak ixtea atzerapausua da"**

"Izebarekin etorri naiz; 89 urte ditu, asmatikoa da eta larri jarri da. Ospitaleko espezialista batekin dabil eta, beraz, zuzenean etorri gara hona; gauza bera egingo genuke Eskoriatzako anbulatorioa zabalik egongo balitz ere. Edozein kasutan, uste dut atzerapausua izan dela ixtea".



**Maria Angeles Gallego**
Arrasate

**"Zerbitzuaren kalitatean galtzea ekarriko du itxierak"**

"Eguerdian etorri gara eta ez genuen hainbeste jende espero; umeak daude gehienbat, sukarrarekin. Ordubete pasatxo daramagu zain eta ez dakigu noiz izango den gure txanda. Zapatuetan anbulatorioak ixteak denbora luzeagoz zain egon beharra eta zerbitzuaren kalitatean galtzea ekarriko ditu".

Eguenean, Debagoieneko Ospitalearen V. Osteoporosi Ikastaldiak egin zituzten Aretxabaletako Otalora jauregian. Gaixotasun horren gaineko adituak batu ziren han; tartean, Debagoieneko Ospitaleko Kirurgia Ortopediko eta Traumatologia Zerbitzuko arduradun Iñigo Etxebarria. Gaitz horren gainean zabal hitz egin du datozen lerroetan.

**Iñigo Etxebarria** > Debagoieneko Ospitaleko Kirurgia Ortopediko eta Traumatologia Zerbitzuko arduraduna

# "Artrosiarekin batera osteoporosia da gaitz metabolikorik zabalduena gurean"

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

**Debagoieneko ospitaleko mediku Iñigo Etxebarriak osteoporosiaren gaineko gaietan jantzita egotearen garrantzia azpimarratzearekin batera, gaixotasuna ekiditeko hartu beharreko neurrien gainean eta horri aurre egiteko gaur egun dauden tratamenduen gainean jardun du ondorengo elkarrizketan.**


Iñigo Etxebarria doktorea, eguenean, Aretxabaletako Otalora jauregian. MIRIAN BITERI

**Bosgarren urtea da osteoporosiaren gaineko jardunaldiak antolatzen dituzuena. Zer asmorekin egiten dituzue?**

Ospitaleko pertsonalaren etengabeko formazioan pentsatzen dugu, gaitzaren gaineko gaurkotasuna beharrezkoa da-eta. Eguen goizean ospitaleko jendearekin egin dugu ikastaroa, gurea izaten jarraitu nahi dugulako; eta arratsaldean Espainiako aditu esanguratsuenak batu dira.

**Zertan datza gaixotasuna?**

Hezurren haustura eragiten du. Osteoporosiak ez du minik ematen. Isilean eboluzionatzen duen gaitza da, eta askotan, hezurhaustura bat gertatu ondoren detektatzen da. Hezurrek errazago apurtzeko arriskua dute; hezurrak ahultzen doaz hainbat arrazoirengatik, hala nola adina edo bestelako arrisku faktoreengatik. Hezur horien kalitatea hobetzea eta horien hausturak ekiditea da gure helburua.

**Nolakoa izan da azkenaldian horren bilakaera?**

Urtero haustura gehiago daude, gaixotasuna duten guztiak ez daudelako diagnostikatuta. Kontuan hartzen ez denez, haustura kopurua gora doa urtetik urtera. Horrez gain, kontuan hartu behar da jendea gero eta urte gehiago bizi dela eta horrek ere haustura gehiago eragiten dituela. Nik azken aipamen horri emango nioke garrantzi handien gaixotasunaren bilakaera aztertzerakoan, jendea gehiago bizi dela.

**Sintomarik ez duenez, zaila da diagnostikatzea?**

Ez. Baina aukera horretan pentsatu behar dugu, hezurra hausten ez den bitartean sintomarik eragiten ez duelako. Agian, konplikatuagoa izango da diagnostikatzea, baina ez da zaila, identifikagarriak diren hainbat arrisku faktore daudelako.

Horretarako, hainbat proba daude; esaterako, dentsiometria izenekoa. Hezurraren dentsitatea neurtzen da horren bidez. X izpiak erabiltzen dira, lepaornoetan bereziki, baita izterrezur edo femurraren lepoan ere. Agian diskutigarria izango da, baina argi dagoena da proba objektiboa dela.

**Zelan ekidin daiteke?**

Bizi izateko ohitura osasungarriak izaten: ez erretzea, neurrizko alkohol-kontsumoa, zentzuko elikadura izatea, ibiltzea eta eguzkia hartzea. Tontakeria ematen dute, hori gomendatzen duguneta beti; baina horiekin nahikoa da hezur-masa maila egokia izateko. Dena dela, ohitura horiek dituena eta osteoporosia duena ere badago, eta, hortaz, tratamendua jarraitu behar duena.

**Zentzuzko elikadura izatea aipatu duzu. Badago gaixotasunari aurre egiteko gomendagarria den jakirik?**

Ez. Kaltzioan aberatsak diren produktuak daude, baina, nire ustez, elikadura orekatua eta osasungarria jarraitu behar dugu, besterik ez. Aldi berean, lehen esan dudan moduan, eta dermatologoak aurka badaude ere, oso garrantzitsua da eguzkia hartzea, gure gorputzak D bitamina har dezan.

URTE GEHIAGO BIZI

**"Jendea gero eta urte gehiago bizi da eta horrek ere haustura gehiago eragiten ditu"**

EGUZKIA HARTU

**"Dermatologoak aurka badaude ere, oso garrantzitsua da eguzkia hartzea, gure gorputzak D bitamina har dezan"**

DEBAGOIENEAN

**"Egoera antzekoa da toki guztietan; ez dago aldaketa nabarmenik biztanlerian eta gaitzaren kudeaketan"**

**Gaixotasunari aurre egiteko tratamenduei dagokienez, zein da eraginkorrena?**

Ezin daiteke esan bata edo bestea baino hobea dela. Tratamendu bakoitza ezberdina da. Gaixo bakoitza ere ezberdina da eta bere historia klinikoa du. Hortaz, banan-banan tratatu behar izaten ditugu. Tratamendua gaixo horren baldintzetara eta beharretara egokitu behar dugu. Hainbat tratamendu daude, batzuk beste batzuk baino agresiboagoak dira.

**Nori eragiten dio bereziki osteoporisiak?**

Normalean, menopausia izan duten emakumeetan azaltzen da gaixotasun hori. Estrogenoen produkzioa geratu egiten da horren ondorioz, eta gernuan kaltzio gehiago kanporatzen denez, osteoporosia jasateko arriskua dute urteek aurrera egin ahala. Dena dela, gizonezkoetan eta umeetan ere azaltzen da gaitza.

**Gainerako tokiekin alderatuta, berezitasunik al dago debagoiendarren artean?**

Ez, egoera antzekoa da toki guztietan. Ez dago aldaketa nabarmenik biztanlerian edo gaixotasunaren kudeaketan.

**Debagoieneko Ospitaleko Kirurgia Ortopediko eta Traumatologia Zerbitzuko arduraduna izanda, jakingo duzu erantzuten osteoporosia bailaran hezurren gaitz ohikoena den edo ez.**

Artrosiarekin batera gaixotasun metabolikorik zabalduena da gure artean. Jendeak artrosia eta osteoporosia nahasten ditu; lehenengoa gorputzeko artikulazioak edo giltzadurak hondatzen dituen gaitza da.




# San Juan jaiak 2010

**SAN JUAN JAIEN JARRAIPENA MAGAZINEAN**
Eguenean, ekainaren 24an, 19:45, 21:15 eta 23:15ean
Astelehenean, ekainaren 28an, 19:45, 21:15 eta 23:15ean

**BABESLEA:** CITROËN

Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

**kale inkesta**

# Zer iruditzen Kataluniako herri batzutan erakunde publikoetan burka eramatea debekatzea?



**Lucia Cuesta**
Erretiratua
Bergara

Niri gaizki iruditzen zait aurpegia estalita eramatea. Herrialde aske baten bizi bagara, askeak gara gure aurpegia erakusteko. Badakit euren erlijioa dela, eta ohiturak direla. Edozein kasutan, debekatu ere ez nuke egingo.



**Eufemia Albarran**
Erretiratua
Bergara

Indarkeria asko dago egun, eta aurpegia erabat estalita eramanda, ez dakigu nor dagoen atzean; beldurra ematen dit. Nik ez dakit debekatuko nukeen, baina, agian, gure arauetara egokitu beharko lirateke.



**Inmaculada Gomez**
Langilea
Bergara

Oso gaizki iruditzen zait. Gure arauak jarraitu behar dituzte. Ohitura izan arren ez lukete erabili beharko. Bizi garen tokiko arauak eta ohiturak izan behar dira gure oinarri, eta eurek ez dituzte errespetatzen.



**Jon Leibar**
Langilea
Bergara

Erakunde publikoetan edozein motatako ikurrak debekatzea ondo ikusten dut. Baina, uste dut norberak gura duen ikurra eraman dezakeela soinean, burka izan, gurutzea izan edo beste edozer izan.

**irakurlearen txokoa**

## 943 25 05 05
## goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Lurraldebusen joateko aurrez abisatu beharra**

Bergarako irakurle batek kexua helarazi digu erredakziora. Ezindua da, gurpildun aulkian dago eta Lurraldebus erabili behar duen bakoitzean, bi egun lehenago, konpainiari jakinarazi behar diolako da kexu. Herritar horrek dio garraiobide publikoa den heinean ez duela zertan ibili telefonoz deitzen bidaiatu behar duela esateko. Arazo honen gainean dagokion lekuan kexatzeaz "aspertuta" dagoela ere badio, eta zer egin dezakeen galdetzen du.

ARRASATE
**> Zarugalde kalean autoarekin kontuz ibiltzeko eskaera**

Joan den astean Arrasateko Zarugalde kalean autoa markatu zioten gidari batek deitu digu, haserre. Zarugalde kalea estua dela-eta, bertatik pasatzean abiadura moteltzeko eta autoa utzi edo ateratzerako orduan tentu handiagoz ibiltzeko eskatzen du.

ARRASATE
**> Realak Arrasaten geldialdia egin ez zuela-eta, haserre**

Arrasateko realzale batek kexa bat ekarri digu. Talde txuri-urdinak Gipuzkoan barrena egindako ibilaldian Arrasaten geldialdirik egin ez zuela-eta minduta dagoela kontatu digu eta bera moduan beste asko daudela gaineratu. Nahiz eta ulertzen duen ezinezkoa dela herri denetan geratzea, bere ustetan, Arrasate aukeratuen artean egon beharko litzateke, "sekulakoa" delako bertan dagoen zaletasuna.

**usteak uste**

**Mirari Altube**

## Zerurako bidea topatzen

Zerurako bidea topatu guran ibiltzen gara askotan gizonok lurrean. Zerura begira bizi dira batzuk, eta lurrean topatzen dute zerua beste batzuk.

Zerurako bidea topatzen laguntzeko gertu dagoen gizona izan zen atzo, Arrasaten, meza esaten: Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzaina. Hika-mika artean etorri da, Joxe Arregi frantziskotarrak egunotan esandakoak oraindik bizi-bizi. Burua lurrean dudan niri –eta Jainkoa nonbait badela sinistuta– zentzuzkoak iruditu zaizkit Arregiren berbok; libre izan gura duen gizon apalarenak.

Eta berba horiek irakurrita beste gizon apal batekin gogoratu naiz, egubakoitzean hil zen Jose Saramago handiarekin hain zuzen. Gizakiaren kezka sakonei erantzuten saiatu zen ateo hura zeruan egongo dela sinistu gura dut gaur.

**zorroztailea**



**Elena Laka**

## Madariaga, Saramago eta Victoria

"Jose Saramago Fundazioak jakinarazi beharra dauka (…) nagusi duen Jose Saramago hil dela. (…) Bere heriotzak triste utzi ditu milaka irakurle eta oso pobre Portugalgo Literatura".

2010.www.josesaramago.org
> 2010-06-18




Andres De Madariaga XVII. mendeko bergarararrak 20.000 dukat eman zituen Bergarako Jesuiten elizan bere omenezko harlauza landu bat ipin zezaten elizaren tokirik seinalatuenean. Joan zen zapatuan herriko plazako elizako industetaren zuzendariak azaldu zuen Madariaga hau Peruko Kontu Auzitegiko kide izan zela bizitza osoan, eta bere ardura Potosi meategiko zilarra Espainiako Erreinura helaraztea zela. Kargu inportantea Bergarako seme honek izan zuena. Induskataren zuzendariak adierazi zuen baita ere Madariaga Orden de Calatravako kidea zela, eta horretarako frogatu behar izan zuela kristau zaharra zela (ez konbertitutakoa), familia onekoa, eta orbaingabeko portaera zela berea. Auskalo nola frogatu ote zuen jatorri guztiz garbia Antzuolako Madarixa baserriko seme honek!

Madariaga morroi hartaz informazio gutxi dago. Bere karguak, aberastasunak, gizartean zuen posizioa baino ez dira ezagutzen. Eta bere nagusitasun hori hil ondoren ere erakutsi nahi izan zuela dakigu, horretarako ordaindu baitzuen sorterriko elizan toki nagusi bat. Datu horietatik hurbildu ahal gatzaizkio gaur pertsonaiari.

**"Frogatu behar izan zuen kristau zaharra zela"**

**"Horretarako ordaindu zuen sorterriko elizan toki nagusi bat"**

Pertsona batengana hurbiltzeko moduak baina anitzak dira. Saramagok *Memorial del convento* liburuan bestelako bat proposatzen du (itzulpena, nirea):"*Ama, hau nire andrea da, Blimunda de Jesús du izena*. Nahikoa izan beharko litzateke hau, bati buruz esatea nola duen izena eta bizitza osoa itxaron zein den jakiteko, baldin eta jakitera iristen bagara, zeren izatea ez da izandakoa izatea, baina ohitura hori da, galdetzea zeintzuk izan ziren bere gurasoak, non jaio zen, zein adin daukan, eta honekin uste du batek gehiago, edo batzuetan dena, dakiela".

Igandeko egunkariak erregetxe bateko kide baten ezkontzako argazkiekin koloreztatuta etorri zitzaizkigun erabat. XXI. mendean, bertako eztei gonbidatu gehienak estatuburu ziren, familia jakin batekoak izatea baino beste merituriк ez dutenak denak ere.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Goiatz Arana **Erredakzioa** Arantzazu Ezkibel,Maider Arregi, Mirari Altube **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Eguenean estreinatuko dute nagusiek San Andres auzoko Etxaluze eraikina, omenaldi batekin **> 14**



**> BERGARA**
Markel Olano eta Eneko Goiak Aldundiaren planak aurkeztu dituzte, 50 bat herritarren aurrean **> 16**



**> ESKORIATZA**
Egunotan hasiko dituzte erabilera askotako aretoaren lehen solairuko lanak **> 19**

**ARAMAIO** > ELKARTASUN JAIALDIA OLETAKO OBENA BASERRIAREN ALDE

# "Etxeko seiok kale gorrian eta ezer barik ikusi genituen gure buruak"

**KEMENTSU**
Obenakoek ez dute itxaropena galdu; ziur daude, egunen baten, bueltatuko direla etxera

**EKAINAK 27**
Kaltetuei laguntzeko elkartasun jaialdia antolatu dute domeka honetarako



Jon Iñaki Isazelaia -Oletako Kontzejuko idazkaria- eta Meritxel Laguillo -kaltetua-, Obena baserri aurrean, hizketan. G.A.

**GOIATZ ARANA** > ARAMAIO
Ia bi hilabete pasatu dira suak Aramaioko Oleta auzoko Obena baserria kiskalita utzi zuenetik, baina bertako bizilagunek ukituta jarraitzen dute oraindik. Eurentzako ezezagunak diren etxebizitza eta herri baten daude uneotan –pisu bat hartu dute alokairuan Otxandion–, baina oletarretatik inoiz baino gertuago sentitzen dira orain, nahiz eta Oletatik kanpo dauden.

Hunkituta hitz egin digu Meritxell Laguillo kaltetuak; etxekoez oroitzean, batez ere: "Sei lagun bizi gara etxean, 90 urteko amama eta 11 hilabeteko haur bat, tartean. Horiek sufritu dute gehien fisikoki, baina moralki gehien jasan dutenak nire gurasoak izan dira, bizitza osoan egindako lana galdu dutelako, 55 eta 56 urterekin".

Etxetik kanpo zegoen Meritxell ezbeharra gertatu zen egunean. Telefonoz jaso zuen abisua, baserritik kea ateratzen zela-eta. Une hartan amama bakarrik zegoen etxean eta hura etorri zitzaion burura; bizilagunek onik atera zutela jakin zuenean, lasaitu ederra hartu zuen. Baina behin Oletara iritsitakoan aurkitu zuen panorama ez du berehalakoan ahaztuko: "Suhiltzaileek esan ziguten ez zegoela ezer egiterik eta, apurka-apurka, etxea nola jausten zen ikustea beste erremediorik ez zitzaigun geratu. Han egondako auzotar batzuek ateratzea lortu zuten ordenadore bat, haur-aulki altua eta lau jostailu hartu ahal izan genituen; ez besterik".

**AUZOKOAK ERE HUKITUTA**
120 bat lagun bizi dira egun Oletan eta bertako bizilagunentzako ere gertatutakoa ez da trago gozoa izan. "Barruraino iritsi zitzaigun, eta iristen zaigu oraindik, baserri aurretik pasatzen garen bakoitzean. Mina sortzen digu", azaldu digu Jon Iñaki Isazelaia Oletako Kontzejuko idazkariak. Gertaera horren ondotik, buelta asko eman dizkiote buruari eta asko ikasi dute: "Zergatik gertatu zen, zer egin suhiltzaileak etorri bitartean, teknikoki zein arazo ditugun horrelako ingurune baten eta egurrezko egituradun etxeekin... gauza askori buruz hausnartu dugu". Ezbeharra gertatu zen egunetik bertatik hasita, astero batu da inguruko jendea.



Baserriaren atzeko aldeko zelaian egingo dute jaialdia. G.A.

## Egitaraua

**12:00etan, Obena ondoan**
Herri Kirolak. Iparraldeko jokoak -Ingude altxatzen, lasto altxatzen, trontzan eta harri jasotzen-:
- Jose Lapazaran
- Jose Martin Bustintza
- Jose Mari Atutxa
- Ibon Irazola

Segalariak Txanda librean:
- Mikel Aranalde
- Iker Etxebarria
- Jose Lizaso
- Jon Lapazaran
- "Zelailuze" harri-jasotzailea

**18:00etan, Oletako plazan**
Erromeria -Xabi eta Unai taldearekin-

**LAGUNTZEKO EKIMENAK**
Oletako Kontzejuak eta Aramaioko Udalak bi kontu ireki dituzte: 3035-0161-23-1610007164, Euskadiko Kutxan; eta 2095-0057-50-9110593759, BBKn. Eta laguntza jaialdi bat antolatu dute, domekarako: eguerdian, herri kirolak izango dira baserri ondoan. "Askotan gauzak urruti geratzen zaizkigu; guk nahiago dugu jendeari baserria zein egoeratan geratu den erakutsi eta bere onera ekartzeak duen kostuaz kontzientziatzea", dio Jon Iñakik. Arratsaldean, erromeria izango da plazan; txosna jarriko dute toki bietan.

**KALTETUEN ESKER HITZAK**
Baserria berriztatzeko aurrekontua beldurgarria dela eta, gutxienez, pare bat urte beharko dituztela kontatu digu Meritxellek, baina ez dutela etsiko: "Ingurukoen babesak ematen digu aurrera egiteko eta buruari tente eusteko indarra. Nola edo hala jasoko dugu baserria eta bertan biziko gara berriz. Eskerrik asko, denoi!".

**ARRASATE** > UMEEN DANBORRADA

# Ibilbidea ezin eginda geratu ziren danborrariak euriagatik


Danborrariak Jokin Zaitegi plazako aterpean, euritik babestu nahian. JOSETXO ARANTZABAL

## Jokin Zaitegi plazako aterpean kantu bi jo eta zuzenean plazara joan ziren zazpi konpainiak

**MIRARI ALTUBE** > ARRASATE
Euriak bete-betean harrapatu zuen zapatuan Umeen Danborradaren hasiera eta ibilbidean aldaketak egin behar izan zituzten antolatzaileek. Jokin Zaitegi plazako aterpean elkartu ziren lehenengo, Danok-Bat elkartearen aurrean, eta 75. urteurrena ospatzen dabilen elkarteari omenaldi apala eskaini zioten bandaren laguntzarekin. Handik plazarantz jo zuten zuzenean.

**ZAZPI KONPAINIA, 240 UME**
*Tatiago* doinuak jota sartu ziren danborrariak plazan eta euriak atertzera egin zuenez, plazaren erdian jarri ziren –bestela, aterpera joatekoak ziren–. Gero, danbor eta kupel hotsen artean, plazari buelta eman zioten ikurrina, Arrasateko bandera eta Sudc-eko bandera zituzten neskek jeneralarekin batera eta udaletxeko balkoira igo ziren guztiak.

Handik aurrera musika eta dantza jaiari hasiera eman zioten bandaren doinuek eta umeen danbor hotsek lagunduta.

Gutxienez 30 urte bete dituen Arrasateko Umeen Danborrada zazpi konpainiak osatu zuten eta guztira 240 neska-mutiko inguru atera ziren zapatuan.


**Ibai Ormaetxea**
Sukaldaria

"Sukaldarion eginbeharra gainerakoak animatzea da danborradan, dantzan egin eta kantatzea. Uste dut hirugarren aldiz parte hartzen dudala eta beti oso ondo pasatu izan dut".


**Ainhoa Sanabria**
Bandera eroalea

"Laugarren aldiz hartu dut parte eta hasieran urduri egon arren zaldi gainean, gero oso ondo pasatu dut. Arrasateko bandera eroatea ohorea da eta eguraldi txarra egin arren, aurrera beti!"


**Koldo Zeziaga**
Kupel-jotzailea

"Kupelak jo ditugu guk. Zapatu guztietan egin ditugu entseguak, eta ondo jo dugu. Lehenengo aldiz hartu dut parte eta oso ondo pasatu dut baina datorren urtean zaldi gainean joan gurako nuke ".


**Maider Uribetxeberria**
Danborraria

"Hirugarren aldiz parte hartu dut eta aurten danborrari urdina izatea tokatu zait, hau da, danborra jotzea uneoro. Entsegu asko egin ditugu eta pena apur bat eman digu euria egiteak".


**Jurgi Iraola**
Jenerala

"Danborrada guztien artean politena izan da niretako, zaldi gainean plazara etorri naiz-eta. Pena euriaren erruz ibilbide guztia ezin egin izana, baina oso ondo pasatu dugu".


Motor zale txikien ibilaldia zapatu eguerdian Arrasateko kaleetan. MIGUEL FERNANDEZ

**ARRASATE** > MOTORRERO EGUNA

# Motor zale txiki eta helduek elkarrekin ospatu zuten jaia

## Dani Carrillo 'stuntman' kataluniarraren ikuskizunak harridura sortu zuen ikusleengan

**M.A.** > ARRASATE
Txiki eta heldu, motor zale guztiendako jaia izan zen zapatuan. Ume koadrila elkartu zen eguerdian Seber Altuben eta Molto motorren gainean Laubide plazaraino joan. Gero jolasak egin zituzten, motoen gainean, noski.

Helduek ere egin zuten ibilaldia arratsaldean eta burruntzian erretako mokadutxoa jan ostean Dani Carrilloren erakustaldiak sortu zuen ikusmina. Euria egin arren, kataluniarrak ikuskizun polita eskaini zuen elkartutako ikusleen harrigarri.

**BERGARA** > BISITA GIDATUAK

# Interes handia dute herritarrek Seminarioko lanetan

## Hogeita hamarren bat lagun elkartu ziren zapatuan egindako bisita gidatuan

**MIRARI ALTUBE** > BERGARA

Bergarako Errege Seminarioko indusketa lanak aurrera doaz eta azken aurkikuntzen berri emateko bisita gidatua egin zuten zapatu goizean. 30en bat lagun elkartu ziren eta adi-adi jarraitu zituzten Jesus Manuel Perez arkeologia lanen arduradunak emandako azalpenak.

**ZILARRAREN KONTROLA**

Andres de Madariagaren hilobia hutsik aurkitzeak ez die interesa eta garrantzia kendu Seminarioan egindako aurkikuntzei: "Hilobia bakarrik ez, eliza guztia da Madariagak bere omenez egin zuen mausoleoa", zioen Perezek.

Bisitariek interes handia agertu zuten Madariaga bergararrarengan, askorendako erabat ezezaguna: "Antzuolako jatorria zeukan gizon honek indar eta botere handia izan zuen; pentsa, Ameriketatik Europarantz zetorren zilar guztiaren kontrola zeukan". Eta arkeologoak berretsi zuen Gipuzkoak eta gipuzkoarrek garrantzi handia izan zutela sasoi hartan.



Arkeologia lanen arduraduna Madariagaren harlauza erakusten. JOSETXO ARANTZABAL

Udalak apustu handia egin duela dio Perezek Seminarioko ikerketa lanen alde egiterakoan eta aditu talde handiaren lana bateratu dute proiektua garatzeko. Orain Peru aldean jarraituko dute dokumentazio lanekin, Madariagaren heriotza data eta testamentuaren berri izateko. Proiektua abuztu inguruan bukatuko dute eta gero lan guztia ikusentzunezkoan jasota geratuko da.


Bisitariak Errege Seminarioko indusketa lanei begira. J.A.

INKESTA

**Pedro Garitano**

Bisitaria

### "Kultura arloan jantzeko dira bisitak"

"Oso aurkikuntza garrantzitsua dela uste dut. Domingo Martinez de Irala antzuolarrarekin zerikusiren bat izan ote zuen Madariaga honek jakin gura nuen nik, baina ez dakigu; guztiz ezjakinak garela garbi dago. Halako bisita gidatuak oso interesgarriak dira herritarrondako, kultura arloan jantzeko aukera dugulako".

**Jesus Manuel Perez**

Arkeologia lanen arduraduna

### "Hilobi hutsak lan ildo berriak zabaldu ditu"

"Hilobia hutsik aurkitzea ezustekoa izan da baina horrek lan ildo berriak zabaldu dizkigu. Hemen egindako aurkikuntzak oso garrantzitsuak dira nazioarte mailan, Madariagak indar handia izan zuelako, ekonomi arloan batez ere. Baina halako gipuzkoar gehiago ere badaude, orain arte oso gutxi aztertu direnak".


JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATI** > HEZKUNTZA

# Jaialdia ikasturteari agur esateko

Elkar Hezi ikastetxeko haurtzaindegian ikasturte bukaerako jaialdia egin zuten egubakoitz arratsaldean. Eguraldia lagun, lorategian egoteko aukera izan zuten eta bertan egin zituzten ekitaldirik garrantzitsuenak, trikitilarien doinu hotsekin. Apika taldeak *Zorionak* ikuskizuna eskaini zien 2 urtetik gorako umeei; gero, gurasoek gertatutako txitxi-burruntzia probatzeko aukera izan zuten guztiek; eta jaialdia bukatzeko, gozo-eltzea (piñata) izan zuten umeek.


JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > DANTZA

# 400 ume jo eta su dantzan

Iparraldekoak izan ezik, gainerako herrialdetatik etorritako dantza taldeen ordezkariak elkartu ziren atzo Arrasaten; gehiengoa, gipuzkoarrak: Otsagabia, Aramaio, Durango, Legazpi, Pasaia, Soraluze, Oñati, Aretxabaleta eta Antzuola. Arrasateko Txikitxu eta Lore Gazteak taldeetako dantzariekin egin zuten bat, eta eguraldia lagun, kale erakustaldiak egin zituzten goizean, hainbat gunetan: Garibai, Seber Altube, Arbolapeta...

Arratsaldean, ostera, alardea egiteko elkartu ziren guztiak plazan eta mutilen dantzak, neskenak eta elkarren artekoak egin zituzten. Kanpotik etorritakoek euren dantzarik esanguratsuenak erakutsi zizkieten arrasatearrei, tartean Otsagabiako dantza ikusgarriak.

**ZERBITZUAK** > ADINEKOAK

# Eguenean estreinatuko dute Etxaluze eraikina

Altzariak gaur, astelehena, iritsiko dira, eta gaur eta bihar artean ipiniko dituzte



Etxaluze eraikinaren itxurak herritar askoren arreta erakartzen du. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Eguenean, ekainaren 24an, zabalduko ditu ateak aurrenengo aldiz Arrasateko eraikin berriak: Etxaluzek. San Andres auzoan dago, eta Abaroa nagusien egoitza berria eta San Andresko alkatetza hartuko ditu.

Sanjuanetan 80 urtetik gorakoei egiten zaien omenaldirako estreinatuko dute, justu, eraikin berria Abaroakoek.

**BERRIRO ERE ITXI EGIN BEHAR**

Hori bai, behin ekitaldi hori pasatuta, atzera ere itxi egingo dituzte Etxaluzeko ateak. Astebete edo pare bat asteko epea utziko diete Abaroakoei egoitza zaharretik berrirako lekualdaketa egin dezaten. Jose Rivierek, Abaroa egoitzako presidenteak aditzera emandakoaren arabera, "ekainaren amaieratik baino, uztailetik gertuago" zabalduko ditu behin betirako ateak Abaroa berriak, taberna eta guzti.

**EGOITZA MODERNOA**

Egoitza bitxia eta modernoa da Etxaluze baserriaren lehengo orubean eraiki dutena. Energia berriztagarriak aprobetxatzen dituen eraikina da eta horrez gainera, diseinu ikusgarria ere badauka.

Sotoa, beheko solairua eta beste bi ditu Etxaluze berriak. Zerbitzuei dagokienez, sotoan biltegi, galdara eta halakoetarako gunea egokituko dute.

Beheko solairuan, berriz, taberna, sukaldea, billar mahaia, podologoa eta ile-apaintzailea izango dira, besteak beste.

Lehenengoan, hiru batzar gela, bi bulego eta bideo eta informatika gela bana, besteak beste.

Eta bukatzeko, azkeneko solairua San Andres auzoko alkatetzak erabiltzeko moduan egokitu dute.

**ESPAZIO HANDIA**

Pozik daude Abaroako zuzendaritzakoak laster estreinatuko duten egoitzarekin: "Gustatu egin zaigu; ez genuen uste, adibidez, horrenbeste espazio izango zukeenik", dio Rivierek.

Tabernan, esaterako, ehun aulki baino gehiagorendako lekua dutela jakinarazi du, "aulki tolesgarriak kontatu barik".

Tabernaren harira, oraindik ez dute erabaki zeinek kudeatuko duen. Bederatzi eskaintzaren artean aukeratu beharko dute. Normalean baino eskaintza gehiago dira horiek, beraz bistakoa da dagoeneko interesa erakarri duela egoitza berriak.

**KEZKA SEGURTASUNAREKIN**

Egoitza berriak, baina, badauka eragozpen handia batzurendako: kokapena. Errepidea gurutzatu beharra dago bertara iristeko eta bidea egokitu egin beharko litzatekeela uste du Abaroako presidenteak: "Zenbait auto gidarik, txirrindularik eta nagusik ez dute errespetatzen semaforoa eta ezta oinezkoen bidea ere... zerbait egin beharko litzateke".

**JAIAK** > ZERBITZUAK

# Udal zerbitzu batzuk itxi egingo dituzte datozen egunotan, jaiengatik

Ekainaren 24an, San Juan egunean, esaterako, ia dena itxita izango da

Sanjuanen ostean, Udal Bibliotekak udako ordutegiarekin segituko du

**U.M.** > ARRASATE

Datozen jaiegunei begira Udalak gogora ekarri gura du udal zerbitzu batzuek ordutegi bereziak izango dituztela.

**BIZTANLEEN ARRETA ZERBITZUA**

Biztanleen Arreta Zerbitzua, adibidez, eguenean, ekainaren 24an, itxita izango da. Ekainaren 25ean, berriz, 08:30etik 14:00ak arte izango dute zabalik. Zapatuari dagokionez, normal jardungo dute; hau da, 09:00etatik 13:00etara. Eta bukatzeko hurrengo astelehenetik, ekainaren 28tik aurrera eguneroko ordutegiarekin zabalduko dute.



BAZeko laginleek eguenean jai izango dute. U.M.

**UDAL BIBLIOTEKA**

Udal Bibliotekari dagokionez, berriz, jakinarazi dute dagoeneko udako ordutegiarekin dabiltzala lanean. Hori horrela, gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, 10:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 20:00ak arte zabalduko dute. Eta ekainaren 23an, 24an, 25ean, 26an eta 27an, berriz, itxita izango dute.

Udal Bibliotekak ere ekainaren 28an hartuko du, berriro ere, udako ordutegia, abuztura arte. Izan ere, abuztuan bestelakoa izaten dute.

**KIROLDEGIA**

Eta kiroldegira bagoaz, bihar, martitzena, 09:00etatik 19:30ak arte zabalduko dute Musakolako kiroldegia; ekainaren 24an itxita izango dute eta ekainaren 25ean, berriz, 09:00etatik 21:00ak arte zabalduko dute.

**GARBIKETA BEREZIAK**

Bestalde, jaietan askok jai izaten duten moduan, beste askok lan egin behar izaten dute. Eta gainera, bestetan baino lan handiagoa. Horixe da, adibidez, garbitzaileen kasua. Gehiago zikintzen dena gehiagotan garbitu behar, jakina. Eta horixe da Cespa enpresak egingo duena sanjuanetan. Are gehiago, dagoeneko egin ditu aurrenengo garbiketa bereziak, asteburuko ekitaldien ostean.

Oraingo asteari dagokionez, berriz, eguenean hasita egunero egingo dituzte garbiketa bereziak herriko kaleetan. Goizean goiz hasita, gainera: 06:00ak 06:30ak inguruan. "Kale zentralek, adibidez, entzierro ordurako gertu egon beharko dute; hau da, zaborra jasota eta kaleak garbituta", kontatu dute udal ordezkariek.

**NAGUSIAK**

# Boluntario gehiago behar ditu Nagusilanek

Arrasaten 33 bazkide ditu, bakarrik dauden nagusiei laguntzeko

**U.M.** > ARRASATE

Beti hartzen dituzte ondo boluntarioak Nagusilan elkartean, zereginik ez zaieeta falta. Eta orain ere halaxe da. Deialdia egin gura dute, Arrasaten boluntarioak behar dituztelako. Parte hartu gura duenak honako telefono zenbakira deitu behar du: 943 25 09 90 (Arrasate pasealekua 3, behea).

**33 BAZKIDE ARRASATEN**

Gaur egun, Arrasateko Nagusilan taldean 33 bazkidek egiten dituzte boluntario lanak. Hiru lekutako nagusiak bisitatzen dituzte: Iturbide egoitza eta Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaletakoak.

Nagusilan Gipuzkoan sortutako elkartea da, 1995ean, bakarrik dauden nagusiei laguntzeko helburuarekin.

**AISIALDIA** > TXATXILIPURDI

# Uztailean herrian geratuko diren gaztetxoek ez dute aspertzeko aitzakiarik: Udaixe dator, bosgarrenez

12 eta 17 urte artekoendako hamaika ekintza daude; izena emateko azken eguna da ekainaren 23a



Piraguan aritzeko aukera izan zuten gaztetxoek iaz. TXATXILIPURDI

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Txatxilipurdiren Udaixe ekimenak bost urte beteko ditu aurten eta urtez urte gero eta indar gehiago ari da hartzen. Aurten, gainera, eskaintza luzatu egin dute, ekintza zein iraupen aldetik. Izan ere, ekainaren azken astera aurreratu dituzte ekintzak.

Sanjuanak atzean utzi berri, hilaren 28an Biteri plazako *Gasolinera* gune tropikal bihurtuko dute, besteak beste. Askotariko frutak jan eta irabiatuak edango dituzte, eta ur jolasetan gozatu.

**IZENEMATEA, HILAREN 23RA ARTE**

12 eta 17 urte arteko gaztetxoendako proposamen paregabea da eta, beraz, ez dute aspertzeko aitzakiarik izango. Mural margotzeak, bazkari eta afariak, film emanaldiak, denetariko irteerak, piragua eta surf ikastaroak... eskaintza zabala da oso. Hori bai, izena ematea beharrezkoa den ekitaldietarako epea eguaztenean amaituko da, hilak 23. Txatxilipurdin edo gazte txokoetan eskuragarri dauden fitxak bete eta ordainketa egin beharko da, bi toki horietakoren baten.

Berritasun nagusia da mendian pasako duten gaua. Lander Juaristi Txatxilipurdiko koordinatzaileak dioenez, izarrei begira hartuko dute lo: "Eguraldi ona egiten badu, asmoa da izarrei begira lo hartzea, Degurixan". Azkenik, Juaristik hilaren 22, 23, 24 eta 25ean kostara egingo dituzten irteerak nabarmendu ditu. Kanpina hartuta, Euskal Herriko kostaldeko hainbat txoko ezagutzeko aukera izango dute. Gonbita egina dago, beraz.

## Udaixe: ekaina eta uztaila

**Ekainaren 28an** Tropijaia Biterin.

**Ekainaren 30ean** Arratsaldean murala egitea eta gero afaria. Egunarekin amaitzeko, pelikula.

**Uztailaren 2a** Goizean murala amaitu, gero bazkaldu eta arratsaldean jokoak.

**Uztailaren 5a** Gamarrako igerilekuetara irteera. Bost euro.

**Uztailaren 7a** Usakora irteera, bizikletan. Bizikletan gogotik izerditu ostean bainu freskagarria, jauzi eta guzti.

**Uztailaren 9a** Lekeition piraguan ibili eta arratsaldean kale antzerkia ikusi. 15 euro.

**Uztailaren 12a** Udala eta Besaidera irteera eta gero Udalako igerilekuetara.

**Uztailaren 14a** Surf ikastaroa Zarautzen. 15 euro.

**Uztailaren 16a** Mendira lotara, izarrei begira. Hiru euro.

**Uztailaren 19a** Gaztetxera bisita.

**Uztailaren 21a** Eskalada Eginon. Hiru euro.

**Uztailak 22, 23, 24 eta 25** Kostaldera irteerak, lau egun eta hiru gau. 45 euro.


Iazko bazkarirako -irudian- txartelak lortzeko ez zen arazorik izan. ARTXIBOA

**SANJUANAK** > KOADRILEN BAZKARIA

# Txartelak lortzeko arazoak direla-eta kexa azaldu dute

Txartela lortu ez duten gazte batzuk salatu dute asko aurrez gordeta zeudela

**J.B.** > ARRASATE

Gazte batzuek kexa azaldu dute San Juan bezperako koadrilen bazkarira joaterik ez dutelako. Azaldu dutenez, txartelak salgai jarri zirenean joan ziren tabernetara txartelak erostera baina horietako asko "erreserbatuta" zeudela azaldu dute: "Guk txartelak salgai jartzen zituztela jakin orduko, beste batzuek erreserbatuta zeuzkaten", diote.

**BATZORDEAREN ERANTZUNA**

Jai batzordeak kexuei erantzun die. Azken hiru urteetan, bazkaria gaztetxean egin denean, txartelak lortzeko arazorik ez dela egon diote: "Gure asmoa da ahalik eta koadrila gehien batzea eta ateak inori ez ixtea. Hala ere, kritikak kontuan hartuko ditugu datozen urteetarako". Bazkarira joaterik ez dutenak, Txopo poteoan parte hartzera gonbidatu dituzte.

> DANBORRADA

### Helduek azken entsegua egingo dute gaur Herriko plazan, 20:30ean

Berezia izango da aurten helduen danborrada: 50 urte beteko ditu. Bada, gaur egingo dute azken entsegua, eguaztenean dena ondo irten dadin. Konpainia guztiek batera entseatuko dute, Herriko plazan. Ohiko moduan, 20:30ean hasiko da eta ordubete inguru iraungo du.

> MUSIKA

### Goikobaluko txikiek ikasturtea agurtuko dute gaur Kulturaten

Ikasturteari behar den amaiera emateko, kontzertua eskainiko dute Goikobalu Txiki eta Goikobalu Gaztek. Hitzordua gaur da, Kulturaten, arratsaldeko zazpietan. Goikobalu Txikiko zuzendaria Amaia Aboitiz da eta Goikobalu Gaztekoa, berriz, Rakel Murgiondo.

> HITZALDIA

### Kooperatibismoa hizpide Orhipean kultur taldeak antolatutako hitzaldietan

Orhipean kultur eragintza taldearen eskutik hitzaldia izan zen zapatuan Arrano elkartean. Antton Mendizabal izan zen hizlaria eta kooperatibismoa izan zuen berbagai. Datorren uztailaren 3an, 10:30etik 13:30era, gai beraren gaineko hitzaldia egingo du Jon Sarasuak.


GOIENKARIA

## Yogako 33 ikaslek irteera egin zuten Nafarroa aldera

Bergara eta Arrasateko erretiratu taldeak irteera egin zuen joan den hilaren 9an Lizarra eta Garesera (Nafarroa). Bi herrietako yoga ikasleek urtero egiten dute txangoa, ikasturte amaieran. Goizean Lizarra ezagutu zuten eta, trago bat hartu ostean, Iratxe hotelera joan ziren bazkaltzera. Arratsaldean, berriz, Gares ezagutzeko aukera izan zuten. Eguraldi hodeitsua egin zuen, baina Jose Luis Armendia yoga irakasleak honakoa adierazi du: "Ibiltzeko giro paregabea egin zuen; ederto pasa genuen".

**POLITIKA** > 'GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE HERRIAN'

# Markel Olano eta Eneko Goiak Aldundiaren planak aurkeztu zituzten

## Herrialdeko errepide sarea, garraio publikoa eta krisia izan zituzten berbeta gai

## San Pedro parrokiako zaharberritzea Gipuzkoarentzat "erronka nagusia" da




Markel Olano eta Eneko Goia, hitzaldiaren momentu batean. N.M..

**NEREA MENOR** > BERGARA

*Gipuzkoako Foru Aldundia Zure Herrian* izeneko egitasmoaren barruan Markel Olano diputatu nagusia eta Eneko Goia Azpiegituretako foru diputatua eta Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramailea, herrian izan ziren.

Gipuzkoako errepide sarea, garraio publikoa edota krisi ekonomikoaizan zituzten berbeta gai, besteak beste. Aretoan 50 herritar inguru egon ziren.

**PERMUTA**

Ordubete inguruko berbaldiaren ostean, galderen tartea heldu zen. Herritar gehienak Errege Seminarioaren permutaren gaineko datu berriakk espero bazituzten ere, Aldundiaren ikuspuntuak bere horretan jarraitzen duela argi laga zuen Olanok. "2011ko bigarren hiruhilabetean hartuko da permutaren gaineko erabakia. Aldundiak inbertsio handia egin behar du eta hausnarketa sakona egin behar dugu. Hezkuntzaren eskuduntza Jaurlaritzak duen heinean, gure ustez, pisu inportantea izan beharko luke eta inbertsio garrantzitsua egin. Beraiek, noski, ikuspuntu propioa dute eta erabaki bat hartu behar dute oraindik ere".

UNEDek Seminarioko eraikinean jarraitu bitartean aurrera egiteko hainbat berrikuntza egin behar ditu. 1,4 milioiko inbertsioa egingo du bertan Aldundiak eta obrak uda honetan hasi eta datorren urte hasieran bukatzeko asmoa dute. "Berrikuntzek ez dituzte etorkizuneko proiektuak baldintzatuko. Beste erabilpen bat hartu behar badu ere egokia izango da", esan zuen Olanok.

**SAN PEDRO ETA GARRAIOA**

Parrokiaren egoeraren berri galdetu zuen herritar batek. "Gastu asko murriztu behar izan ditugu. Ondareari dagokionean, Gipuzkoako erronka nagusienetarikoa da San Pedro, baina behar den kantitatea handia da. 2011n diru nahikoa izanez gero onartuko da", azaldu zuen Markel Olanok.

Beasain- Durango errepideari dagokionez, Eneko Goiak esan zuen Deskargako zatiarekin aurten hasiko direla eta segidan Bergarako zatiarekin, baina "egoera ekonomikoaren baitan gaude". Garraio publikoari lehentasuna emateko, Debagoienean errail berezia egitearen beharra aztertzen dabil Jaurlaritza. "Tranbia baina ez dut uste euren asmoen artean dagoenik", esan zuen Goiak.

ESANAK

**"2011ko partida nahikoa izanez gero, onartuko da San Pedroko obra"**
**Markel Olano** > Diputatu nagusia

**"UNEDeko permutaren gaineko erabakia hartuko da 2011ko bigarren hiruhilekoan"**
**Markel Olano** > Diputatu nagusia

**"Deskargako zatia aurten hasi nahi da; segidan, Bergarakoa egitea da asmoa"**
**Eneko Goia** > Azpiegitura diputatua

**AISIALDIA** > IKASTURTE AMAIERA

# Eriz Magoa Xipizaro ludotekan egongo da ekainaren 25ean

## Ikasturteari amaiera emateko Eriz Magoaren emanaldia egongo da Xipizaron. Gero, merienda egingo dute guztiek batera

**N.M.** > BERGARA

Eskolako ikasturte amaierakin batera etorri ohi da ludotekaren bukaera. Datorren egubakoitzean amaiera emango diote Xipizaro ludotekakoek ikasturteari baina,hasi dira dagoeneko udalekuak prestatzen.

Ikasturte amaiera ospatzeko, Eriz magoa etorriko da Bergarara. Ekainaren 25ean izango da arratsaldeko 17:00etan ludotekan bertan. Ordubeteko emanaldia izango da. "Bergarako eta Osintxuko ludotekan ibili diren haurrentzat izango da", adierazi digu Ainhoa Arbelaitzek, Xipizaroko arduradunak. Magoaren saioa bukatu eta gero, merienda egingo dute haur eta irakasleek ludotekan.

**BALORAZIO POSITIBOA**

"Aurten, ludotekako haur kopurua nahiko altua izan da", dio Arbelaitzek. "Batez beste, 80 ume izan ditugu Bergaran eta 15-20 Osintxun".

Urteko balorazio positiboa egin dute Xipizaroko kideek. "Oso gustura egon gara bai gu, ludotekako arduradunok, baita haurrak ere. Ez dugu kexarik jaso, ez guraso eta ezta haurren aldetik ere".

San Martin plazan zuten egoitzatik, duela gutxi mugitu da ludoteka Agorrosingo eraikinera. Kokapena ondo dagoela uste duten arren, lekua txiki gelditu zaiela azpimarratu dute Xipizaroko kideek.

**UDALEKUEN HASIERA**

Ludoteka zerbitzua bukatu arren, haurrak elkarrekin egoteko eta lagun berriak egiteko udalekuak antolatzen ditu Xipizarok. "Datorren uztailaren 1ean udalekuei emango diegu hasiera hilabetearen 23a arte", dio Ainhoa Arbelaitzek.

Aurten 300 haur, eta gaztetxo, baino gehiago izango dituzte udalekuetan. Hauek, bi urtetik hamalau urtera bitarteko umeei zuzenduta daude eta askotariko ekintzak egiten dituzte. "Programaketa egiteko orduan, kanpoko ekintzei ematen diegu lehentasuna, urte guztia baitugu barruan egoteko", esan digute ludotekakoek. "Dena den, programaketa eguraldiaren arabera burutu ahal izango da. Beti izaten dugu bigarren programaketa barruko ekintzekin: eskulanak, jolasak eta bestelakoak egiten dituzte haurrek".

**UDALBILTZA AUZIA** > ELKARTASUNA

# 'Bai Udalbiltzari Babes Taldea'ren aurkezpena martitzenean udaletxean

## Udalbiltzaren aurkako epaiketaren berri emateko eta inputatuei elkartasuna adierazteko taldea da

**N.M.** > BERGARA

Zazpi urteren ostean Udalbiltzaren aurkako epaiketa uztailaren 15ean hasiko da.

"Udalbiltzaren aurkako epaiketaren berri eman nahi dugu eta bidegabekeria honen aurka elkartasuna bildu". Helburu honekin, hainbat herritarrek *Bai Udalbiltzari Babes Taldea* sortzearen beharra ikusi dute eta babes talde hori pentsamolde anitzeko herritarrei zabaltzearen komenigarritasuna ere.

**EPAIKETA**

Udalbiltzaren aurkako epaiketan 22 pertsona daude inputatuta. "Gehienak udal hautetsiak izandakoak", adierazi du taldeak. Akusazioek 10 eta 23 urte bitarteko espetxe zigorra eskatzen dutela diote, "inolako jarduera deliktiborik ez dagoen kasu batean".

Hori guztia salatua izan da euskal gizartean eta nazioartean. "Adierazpen aipagarrienak: 2.000 euskal hautetsi baino gehiagok nazioarteko erakundeetara bideratuko salaketa; Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak argitaratutako txostenak; azkenik, 2008ko abenduan Gasteizko Legebiltzarrak onarturiko ez-legezko proposamena, non fiskalari akusazioa erretira dezan eskatzen zaion".

Aurrerantzean, bide berdinetik jarraitu nahi dute, eta ahalik eta elkartasun zabalena jasoz.

**JAIAK** > SANJUANAK

# Suaren bueltan dantzan ospatuko dute San Juan bezpera

Herri Mugimenduak antolatu du sua eta piztuko dute San Martin plazan, 22:30ean; musika eta dantza saioak egongo dira suarekin batera

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Ohiko bihurtu da San Juan bezperan sua egitea San Martin plazan, eta aurten ere piztuko dute. Herri mugimendua arduratu da antolatzeaz, 22:30ean piztuko dute eta herritarrei dei egiten diete parte hartzera. Horren aurretik, baina, triki-poteoa egingo dute, 19:30ean, gaztetxetik abiatuta.

Suari dagokionez, urteko gauza txarrak bertara bota eta erretzeko aukera egongo da eta halaxe egingo dute Herri Mugimenduko kideek. Baina ekitaldia hori baino gehiago izango da: txalaparta eta adar soinuekin emango diote hasiera, ipuina kontatuko dute, 20 bat lagunek sorgin-dantza egingo dute, abestiak entzuteko aukera egongo da, eta baita trikitilariak ere.

**SAN JUAN AUZOKO JAIAK**
San Juanen auzoko jaiak ospatuko dituzte egunotan. Eguenean, hilak 24, hasiko dira eta domekara arte iraungo dute; askotariko ekitaldiak egongo dira.

San Joxepe erretiratuen elkarteko abesbatzak abestutako mezarekin hasiko dituzte jaiak, 12:00etan. 12:45ean auzoko elkartean pintxoak, edaria eta salda banatuko dute eta 21:00etan kontzertua egongo da.

Hilaren 25ean, egubakoitza, San Juan auzoko poker txapelketa jokatuko da Tartufoko areto handian, 21:00etan.

Hilaren 26an, zapatua, eguerdian hasiko dira ekitaldiak. 13:00etan txikiteoa egongo da trikitilariek alaituta eta 14:30ean, auzo bazkaria, 20 eurotan. Izenematea zabalik dago Tartufo jatetxean.

17:30ean San Juan auzoko briska txapelketa jokatuko da Tartufoko areto handian eta 18:00etan, umeendako jolasak egongo dira eliza aurreko zelaian. 23:00etan, berriz, dantzaldia egongo da 03:00ak bitartean. Antolatzaileen esanetan, pasodoblea eta tangoa dantza klasikoak egiteko aukera egongo da Angie eta Fer disko jartzaileekin.


San Juan sua, San Martin plazan. ARTXIBOA

Jaiak hilaren 27an, domeka, bukatuko dira 17:30ean 10 eta 14 urte arteko gaztetxoendako antolatu duten festarekin. Tartufon izango da festa hori. Botalia urak 0,50 zentimo balioko du eta freskagarriak, euro bat. Urbano zerbitzua ere egongo da: lehenengoa 17:15ean abiatuko da Tartuforantz azoka ostetik eta itzulerako lehenengoa 20:30ean izango da.

## oharrak

GAZTEAK
**> Irteera antolatu dute paintballean egitera, Lasturrera**
Udalak antolatu du eta izango da hilaren 30ean. Paint-ballean egiteaz gain, Debako hondartzara ere joango dira. Izenematea: ekainaren 16tik 23ra, kultura etxean; prezioa, 18 euro.

AZOKA
**> Truke azoka egiteko jostailuak batzen ari da Jardun**
Etxean erabiltzeke ditugun jostailuak batzen dihardu. Ekainaren 24ra arte batuko ditu elkartearen bulegoan eta eramandako jostailu bakoitzeko –panpinak eta garraioak izan ezik– txartel bat emango dute. Azoka izango da ekainaren 25etik 27ra, Arrizuriagan. Hor trukatu ahal izango dira txartelak jostailuengatik.

HEZKUNTZA
**> Aranzadik ikasturte bukaerako jaia egingo du 23an**
18:30ean jaialdia egingo dute, Udal pilotalekuan. Ikasleek hartuko dute parte eta marrazki eta kartel lehiaketako sariak banatuko dituzte. 20:30ean afaria egingo dute jolaslekuan eta 22:00etan, San Juan sua eta dantzaldia.

HEZKUNTZA
**> Ekitaldi ugari San Martinen, ikasturtea agurtzeko**
Ekainaren 17an hasi eta 23ra bitartean askotariko ekintzak egingo dituzte San Martin Herri Eskolan. Euskal Astearekin agurtuko dute ikasturtea irailaren 7ra arte.

**KULTURA** > ANTZERKIA

# 'Inozentzio Xou' 'clown' saioa ikusteko aukera egongo da eguenean Pol-Pol tabernan

Andoni Egaña Mendaroko pailazoak egingo du emanaldia; euskarazko emanaldia izango da, Oihulari Klownen eskutik


Andoni Egaña *clown*-a. GOIENKARIA

**M.B.** > BERGARA
Eguenean, ekainaren 24an, *Inozentzio Xou* izeneko ikuskizuna egingo du Oihulari Klown antzerki taldeak Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

Ikuskizun hori bakarkako lana da eta taula gainean taldeko kide Andoni Egaña Mendaroko pailazoa ikusteko aukera egongo da.

**IPUIN ZIRKUITUA**
2009-2010 ikasturtean barrena ahozko narrazio zirkuitua antolatu du *clown* talde horrek. Horren harira, hainbat ipuin kontalari ikusteko aukera egon da Pol-Pol tabernan. Bada, azkena maiatzean izan zen –datorren ikasturtean jarraituko du.

Hori horrela, ekainerako *Inozentzio Xou* helduendako euskarazko antzezlan hori antolatu dute.



IÑIGO ZAITEGI

## Udaberri txapelketak baditu irabazleak

Eguenean jokatu ziren Udaberriko txapelketako finalak. Benjamin D mailan irabazlea izan zen Erik Aranburu; Benjamin C mailan, Josu Mendizabal eta Unai Ibarra; Benjamin B mailan, Julen Etxabarri eta Josu Larrañaga; eta Benjamin A mailan, Oñatz Gutierrez eta Luken Arriola. Alebin mailari dagokionez, Aitor Rueda eta Aimar Olañeta gailendu ziren. Infantil B mailan, Unai Zubizarreta eta Jon Etxeberria izan ziren irabazle eta Infantil A mailan, Iban Ruiz de Larramendi eta Pello ETxaniz.



Iazko kroseko korrikalariak Olaten itzulia egiten. Quadak markatzen du ibilbidearen erdia. ARTXIBOA

**KIROLA** > KROSA

# Zabalik Torreauzoko kroseko izenematea domekara arte

ZeroKm dendan eta 'www.antxintxiketan.com'-en eman daiteke izena aldez aurretik, zortzi eurotan

Korrikalariek 7,5 kilometroko ibilbidea egin beharko dute: San Pedro-Olate-San Pedro

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Antxintxiketan Kirol Elkarteak Torreauzoko 13. herri krosa antolatu du domekarako, hilaren 27rako. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Bi modutara egin daiteke: aldez aurretik, ZeroKm dendan eta *www.antxintxiketan.com* webgunean, zortzi eurotan; edo egunean bertan, proba hasi baino ordu erdi lehenago, baina 12 euro ordainduta. Izenematea webgunea erabilita egiten dutenek Kutxako 21010057580011760360 zenbakian sartu beharko dute dirua.

**GUZTIAK MAILA BEREAN**
Parte-hartzaileek 7,5 kilometro egin beharko dituzte; hain zuzen ere, San Pedro-Olate-San Pedro ibilbidea egingo dute. Korrikalari guztiak maila berekoak izango dira, federatuta egon edo ez. Parte hartzeko bete beharreko baldintza bakarra 1994. urtean edo aurretik jaio izana da. Helmugako denbora kontrola irteera hartu eta ordubetera itxiko dute.

Lasterketa bukatu ondoren, sari banaketa egingo dute Etxe Aundi jatetxearen ondoan. Gizonezkoen eta emakumezkoen sailkapeneko lehengo hirurek opariak jasoko dituzte, eta irabazleek Antxintxiketan Elkartearen txantxikua. Gainera, sailkapeneko lehen oñatiarrak urdaiazpiko bat irabaziko du.

**IAZ, BEROA NAGUSI**
Iazko Torreauzoko krosak bi ezaugarri nagusi izan zituen: inoizko kros herritarrena izan zen; eta, aspaldiko partez, beroena. 114 korrikalarik parte hartu zuten nagusien mailan, eta 24k gaztetxoen proban. Manu Hurtado beasaindarra (25.42) eta Isabel Ramos (33.04) oñatiarra izan ziren azkarrenak.

**HEZKUNTZA** > OSPAKIZUNAK

## Errekalde herri eskolakoekin kulturen arteko festa zapatuan

**M.B.** > OÑATI
2009-10 ikasturtea festa giroan bukatzeko Errekalde herri eskolako guraso taldeak kulturen arteko festa antolatu du zapaturako. 18:00etatik 22:00etara arte egingo dute jaialdia Herriko Plazan.

Festaren helburua da munduko kultura ezberdinak ezagutu, ulertu eta kulturen arteko hartuemanak sustatzeko bidean urrats bat gehiago egitea.

**JAKIAK PROBATZEKO AUKERA**
18:00etan haurrendako tailerrak egingo dituzte; besteak beste, kometak, maskarak eta bitxiak egingo dituzte. Bestalde, Marmara Marching Band taldeak zuzeneko musika eskainiko du, 19:00etan. Gainera, Brasil, Senegal, Paraguai eta Errumaniako jakiak probatzeko aukera egongo da. Nubi elkartekoek ere festan parte hartuko dute.



Marmara Marching Band taldeak kalejira egingo du. ERREKALDE HERRI ESKOLA

>AUZOAK

### Olakuako saskiak konpondu egingo dituzte

Olakuako kirolgunean dauden saskiak konpondu egingo ditu Udalak. San Andres Etxebizitza Kooperatibak egindako eskaera aintzat hartu eta aldatu egingo dituzte.

Bestalde, Olakuako urmaelean Gabonetan ipintzen duten jaiotzarendako oinarria aldatzea eskatu du San Andres Kooperatibak. Orain arteko oinarria apurtu egin zuten ezezagun batzuek, eta berria jartzea erabaki du Udalak. Olakuako bizilagunek oinarri berriaren planoa aurkeztu eta hormigoizkoa egitea proposatu dute.

### oharrak

AURKEZPENA
**> Ezker abertzaleak herri batzarra egingo du**
Eguaztenean bilduko dira, kultura etxean, 19:00etan. Besteak beste, akordio estrategikoaren aurkezpena egingo dute. Batzarra irekia da eta herritar guztiak gonbidatu dituzte.

ERAKUSKETA
**> Josu Garairen argazkiak ikusgai**
*Munduan zehar* delako erakusketa ikusteko azken eguna bihar da. Besteak beste, Kuban, Malin eta Indian egindako erretratuak ikus daitezke kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

DEIALDIA
**> Baserrietako plastikoen hurrengo batzea uztailean**
Uztailaren 27an batuko dituzte baserrietan pilatutako plastikoak. Lau puntutan jasoko dituzte plastikoak: Zañartun, Zuazola inguruan; Murgian, Asentzio ermita ondoan; Olabarrietako autobus geltoki ondoan; eta ETEO ikastetxearen atzealdean. Baserriko plastikoak batuko dituzte.

OSPAKIZUNA
**> 1968an jaiotakoek kintada egingo dute uztailean**
Aretxabaletako Baster-Alde jatetxean egingo dute. Interesatuek 30 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 30350005320051041313 zenbakian.

OSPAKIZUNA
**> 1964an jaiotakoek kintada egingo dute uztailean**
Etxe Aundin egingo dute bazkaria uztailaren 24an, 14:30ean. 13:00etan Oñati tabernan elkartuko dira txikiteoa egiteko. Bazkarian parte hartu gura dutenek 30 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 3035000531 0051041678 zenbakian.

**ESKORIATZA** > OSPAKIZUNA

# 1993an jaiotakoek isiotuko dute San Juan sua eta tantaia jaso gero

Arratsaldean txorimaloaren bila joango dira eta lore-sendorra gertatu; su japoniarrak egongo dira umeendako plazan eta jatekoa guztiendako

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

Eguaztenean, hilak 23, udako solstizioak eta San Juan bezperak bat egingo dute antzinako usadioak gogora ekarriz. Usadio horiek berritzeko asmoarekin hainbat ekitaldi antolatu ditu Kultura Sailak. Arratsaldean (18:00) txorimaloaren bila joateko proposamena egin diete herritarrei. Horretarako herriko plazan elkartuko dira guztiak eta gero datorren urterako lore-sendorra gertatuko dute. Ohitura da San Juan sendorra gertatzea sasoiko lore eta landareekin eta gero urte guztian gordetzea datorren urteko sua egin arte.

Su japoniarrak botako dituzte umeendako ilunkeran (19:30) plazan, eta bien bitartean gazta mokadutxoa eta edariak eskainiko dizkiete herritarrei antolatzaileek.

**SUAREN GAINETIK SALTO**

Ilundutakoan San Juan suaren txanda izango da (22:30) eta aurten 1993an jaiotako gazteek isiotuko dute. Erromeria giroa sortuko da orduan eta txistu doinuek lagun eginda suaren inguruan dantzatu eta gainetik salto egiteko aukera izango dute Eskoriatzako ausartenek.

Suaren azken garrak itzalitakoan (23:30) tantaia jasoko dute 1993an jaiotakoek; hain zuzen, egunean zehar inguruko basoren batean botako duten zuhaitza. Gazte horiek izango dira datorren urtean Santa Ageda eskean eta kantuan ibiliko direnak.

**LANAK** > SANTA ANA KOMENTUA

# Erabilera askotako aretoaren lanak egunotan hasiko dituzte

San Pedro jaiak daude tartean eta beranduenez uztailaren 5ean hasiko dituzte

Lehen faseko lanetan lehen solairuko harmailak eta sabaia txukunduko dituzte



Aretoaren ikuspegia: lehen solairuko harmaila mugikorra. ESKORIATZAKO UDALA




Aretoak zelako banaketa izango duen adierazten duen planoa. ESKORIATZAKO UDALA

**M.A.** > ESKORIATZA

Santa Ana komentua izan zen kaperaren lanak datozen egunotan hasiko dituzte. Data zehatzik ezin izan diote eman Udalari San Pedro jaiak daudelako tartean, baina beranduenez uztailaren 5ean hasita egongo direla jakinarazi dute Goitu SL enpresako arduradunek. Bost hilabeteko epean bukatuko dituzte lehenengo faseko lan horiek eta Udalaren asmoa da horiek bukatu orduko bigarren fasearekin hastea.

**LEHEN SOLAIRUAREN LANAK**

Kultur erabilera izango duen aretoa egingo dute Santa Anan eta Udalak egunotan jarri ditu ikusgai planoak. Aretoak 150 lagunendako lekua izango du: 99 beheko solairuan sartuko dira eta beste 51 lehenengo solairuan egingo duten harmaila mugikorrean.

Lehen faseko lanetan lokala hustu egingo dute eta sabaia, lehenengo solairuko harmailak eta kanpoko fatxada txukunduko dituzte. Beheko solairuak 228 metro koadro izango ditu eta bertan egongo dira antzokia –30 metro koadro– eta 99 jarlekuak. Aldamenean komunak, aldagelak eta biltegia izango ditu, hortaz, guztira 452 metro koadroko azalera izango du solairu horrek.

Horrekin bukatuko dituzte lanok eta bigarren faserako utziko dituzte jarlekuak eta soinu eta intsonorizazio ekipoak egokitzea.




Iñigo Trueba eta Dorian Fernando Ruiz Salinasen gaineko berbaldian. HIRUATX

**ARETXABALETA** > ELKARTASUNA

# Hiruatxi esker makina berria daukate Ekuadorren

Salinas eskualdean garatzen dabiltzan perretxikoen ekoizpenerako da

**M.A.** > ARETXABALETA

Ekuadorreko Salinas de Bolivar eskualdean bizi den Dorian Fernando Ruiz kidea gure artean dago azken asteotan eta Hiruatx elkarteak Salinasen duen proiektuaren azken berriak ekarri ditu.

**PERRETXIKO LEHORGAILUA**

Perretxikoen ekoizpenean dabiltza laguntzen Hiruatx eta Mundukide Salinasen. Izan ere, Hiruatxek finantziazioaren ardura du eta Mundukidek proiektuaren garapenarenarena.

Oso paraje hezea da eskualde hori eta pinuen artean perretxiko asko sortzen dira. Horiek jaso, lehortu eta saltzea erabaki zuten orain dela urte batzuk. Ekoizpen horretan hobekuntzak egin dituzte poliki-poliki eta azkena Hiruatxi esker izan da: perretxikoak lehortzeko gasezko lehorgailu berria. Martxoaz geroztik dabiltza lanean horrekin eta lehenengo hobekuntzak igarri dituzte: kostu murrizketa eta kalitate hobea deshidratatze prozesuan; eta etekin handiagoak eta ondorioz hornitzaileei hobeto ordaintzeko aukera.

Gainera, Mundukideko lagun bat dago bertan enpresaren antolaketaren gaineko aholkuak eman eta laguntzen. Hurrengo urteetarako lan egitaraua zehazten dabiltza eta asmoa da beste produktu batzuk ere ekoizten hastea makina berriari esker, perretxiko hautsa esaterako.

> OSASUNA

## Udaberriko odol ateratze kanpaina ezin hobea izan da: 137 lagunek eman dute odola

Hiru egunean izan dira Aretxabaletako osasun etxean Arabako Odol Bankuko kideak odola jasotzen. Eta oso pozik daude, herritarrek bikain erantzun diotelako deialdiari. Hona odola emandako lagunen kopuruak: maiatzaren 31n, 58 (horietako batek lehenengo aldiz); ekainaren 7an, 34 (bik lehenengoz); eta ekainaren 15ean, 45 (batek lehenengoz). Guztira, 137 emaile izan dira eta horietatik lau lehenengo aldiz joan direnak. Hurrengo kanpaina udazken partean egingo dute.

> MERKATARITZA

## Aretxartek maiatzean egindako zozketaren saria 14.051 zenbakia duenarendako izango da

Aretxarte merkatarien elkarteak hilabete guztietan egiten du zozketa bezeroei banatutako txartelekin. Maiatzeko zenbakia duena ez da agertu, eta, ondorioz, ordezko zenbakia –14.051, Aitzorrotz dendan banatua– duenarendako izango da saria: Kantabriako natura parke batera irteera edo upategi batera bisita, aukeran. Ekaina bukatu bitartean agertu beharko du zenbaki horren jabeak.

Ekaineko zozketa datorren astean egingo dute eta saria da Arrikrutzera bisita eta Zelai Zabalen bazkaria bi lagunendako.



Adarrots taldeak emango dio amaiera ekaineko musika egitarauari. GOIENKARIA

**ARAMAIO** > KULTURA

# Adarrots folk taldeak joko du barikuan Sastiñan

Bizkaitarrek hamaika kantu batu dituzte euren lehenbiziko diskoan; horiez gain, konposizio berriak eskainiko dituzte Aramaion

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Barikuetako musika programazioari bukaera emateko, Adarrots taldearen emanaldia izango da barikuan, Sastiñan, 20:00etan. Bizkaiko ezkerraldean 2004an sortutako folk musika taldea da Adarrots. Iaz, Mendebala Folk Jaialdiak bi urtetik behin antolatzen duen talde berrien IV. Maketa Lehiaketa irabazi zuten eta ondoren *Haizekadak* izenburuko beraien lehen diskoa kaleratu zuten Durangoko azokarako.

Folk euskalduna egiten dute bizkaitarrek eta honako hauek dira taldeko partaideak: Rosa (ahotsa), Iñigo (bibolina), Bingen (flautak eta klarinetea), Sendoa (perkusioa), Toño (baxua), Iñigo (alboka) eta John (gitarra). Iñigo bibolin joleak esan digunez, diskoan batutako kantuak eta konposizio berriak tartekatuko dituzte barikuko emanaldian.

**IKASLEENDAKO LAGUNTZAK**

Aramaioko Udalak garraiorako dirulaguntzak ematen ditu ondoko ikasketak egiten ari direnenako: DBH (Arrasateko Institutukoak izan ezik), erdi eta goi mailako heziketa zikloak eta unibertsitate mailako ikasketak. Dirulaguntzak jasotzeko interesa dutenek urteko matrikularen ordainagiria eta banketxeko kontu zenbakia eraman behar dituzte udaletxera, ekainaren 30a baino lehen.

Era berean, Aramaion erroldatutako Arrasate Musikaleko ikasleek eta langabetuek aukera daukate musika ikasketak egiteko dirulaguntzak eskuratzeko. Eskaerak uztailaren 16ra arte jasoko dituzte udaletxean.

**AURRERAKIN PLANA, IKUSGAI**

Bestalde, Udalak gogoratu duenez, aurrerakin plana ikusgai dago osoko bilkuren aretoan, datorren asteko eguaztenera arte –ekainak 30– udaletxeko ordutegian.

**ANTZUOLA** > OSPAKIZUNAK

## Kalebarrengo jaiak ospatuko dituzte auzotarrek aste bukaeran, ekintza askorekin

Zapatuan 20:00etan arbola jasotzea egingo dute eta ondoren, hain ezaguna den sagar-dantza egingo dute herritarrek

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Ospakizunez betetako astea izango da oraingoa. Sanjuanen ondoren, aste bukaeran Kalebarrengo jaiak ospatuko dituzte. Ekitaldiz betetako aste bukaera izango da. Zapatuan, 12:00etan, herriko gaztetxoei zuzendutako ekintzak egingo dituzte. Jinkana egingo dute Kalebarrenen.

**SAGAR-DANTZA**

Hurrengo ekintzak arratsaldean izango dira. 20:00etan arbola jasotzea egingo dute, eta gauerdian sagar-dantza Kalebarrenen. Musikaren laguntzarekin, bikoteka, sagarrari bekokian nork luzaroago eutsi da sagar-dantzaren helburua. Lehenengo hiru bikoteek sariak izango dituzte.

**OINARINEN SAIOA**

Domekan, 12:30ean, Oinarin dantza taldearen saioa izango da. Eta 19:00etan, Kalebarrengo plazan De Bote En Bote taldearen *Argotu* ikuskizuna. Zirkua, musika eta kale antzerkia nahasten dituzte Gorka Pereira, Luciano Mezzotero eta Aritza Rodriguez protagonistek. Ordubete inguru iraungo du lanak.

**ELGETA** > JAIALDIA

## Ikasturte amaierako ekitaldi ezin *martxosoagoa*, aurten

Espaloia kafe antzokia jendez lepo bete zen bariku arratsaldean eskolako umeek prestatutako ikuskizuna ikusteko

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

*1, 2, 3 esan berriro* lehiaketa ospetsua abiapuntu hartu eta hamaika dantza saio egin zituzten herri eskolako umeek barikuan. Urtero legez, gurasoek eta senitartekoek bete egin zuten aretoa jaialdia ikusteko. Ordubete pasatxoko ekitaldia izan zen eta erritmo handiko abestiak dantzatu eta kantatu zituzten umeek. Landutako saioa izen zen, zalantza barik.

**SEIGARREN MAILAKOEN AGURRA**

Herriko umeen artean makina bat artista dagoela argi geratu zen barikuan. Saio borobila egin zuten baina, akaso, hunkigarriena seigarren mailako ikasleen agurra izan zen. Aurrerantzean, Elgetatik kanpo egingo dituzte ikasketak. Euren agurra polita izan zen, baita luzaroan gela berean ikaskide izan dituzten 5. mailakoek eskainitako omenalditxoa ere.



Eskolako umeak, ekitaldi amaieran, Espaloiko agertokian dantzan. L.Z.

**LEINTZ GATZAGA** > TURISMOA

## Erretiratu taldeak dira orain museoko bisitariak

Abuztura bitartean ez du aldaketarik izango gatz museoko bisiten ordutegiak

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Bisitari kopurua mantendu egin dute gatz museoan azken urtean, krisi sasoia izan arren. Ikastetxeetako umeen bisitek behera egin dutela onartu dute museoko arduradunek, baina erretiratu taldeenek gora egin duten heinean. Egunotan, esaterako, bi talderen bisitak dituzte hitzartuta, bata erretiratuena eta bestea nagusien egoitza bateko kideena. Museora ez ezik, Dorletako santutegira eta Jakion kontserba enpresara ere egiten dituzte bisitak.

**ORDUTEGIA**

Museoko ordutegiak ez du aldaketarik izango abuztua iritsi bitartean. Hala, zapatu eta domeketan bi bisita gidatu egiten dituzte: 12:00etan, euskaraz; eta 13:00etan, gazteleraz. Hala ere, taldeak beste ordu batzuetan ere hartzen dituzte, aurrez deituz gero. Abuzturako, ostera, oraindik ez dute erabaki zein ordutegi jarri, udal ordezkariekin batera adostu gura dute museoko arduradunek.

**V. GASTRONOMIA JARDUNALDIAK**

Bestalde, Soran Etxea hoteleko jatetxea Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako V. Gastronomia Jardunaldiak egiten dabil, beste jatetxe batzuekin batera. Hala, ekaina bukatu bitartean eskainiko dute bakailaoarekin eta ortuan ekoiztutako produktuekin osatutako menu berezia.

Soraneko arduradunek jakinarazi dute, gainera, udan sartu orduko menu bereziak eskaintzen hasiko direla 25 eurotan –ardoa eta kafea barne–: "Ea uda sasoia animatzen dugun horrela".

# Kirola



**> TXIRRINDULARITZA**
Osintxun jokatutako nesken proban Olaberria nagusitu zen **> 22**



**> SASKIBALOIA**
200 gaztetxo Labegaraietako jardunaldietan **> 23**



**> ERREMONTEA**
Urtasun eta Lizaso Bergara Hiria txapelketan, irabazleak **> 25**



Lagun eta senitartekoen begiradapean, neskek irribarretsu egin zuten taldekako lana. JOSETXO ARANTZABAL



Gimnasta bat, zintarekin koreografia egiten. J.A.

# Urte guztian ikasitakoak erakutsi zituzten gimnastek

**DRAGOI TALDEA** Arrasatearrek urte amaierako ekitaldia egin zuten Seber Altube plazan

**EURIA** Uste baino lehenago amaitu behar izan zuten ikuskizuna neskek, euria hasi zelako

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Urte guztian ikasitakoak praktikan jarri zituzten Dragoi gimnasia taldeko neskek egubakoitzean. Lagunen eta gurasoen aurrean ibili ziren. Erakustaldia amaitzeko gutxi falta zela euria hasi zen eta uste baino lehenago bukatu behar izan zuten. Hori izan zen egubakoitzeko pena bakarra.

**IKUSLE ASKO**

Seber Altube plazara jende asko joan zen gimnasia erritmikoa ikustera. "Gure asmoa gimnasia kalera ateratzea da", azaldu digu Edurne Elkoro Dragoi taldeko irakasleak.

Arrasateko taldean 115 neska-mutil dabiltza gimnasian. "Bost urtetik aurrerakoak dira, eta nagusienak 22 urte dauzka", esan du Elkorok. Irakasleak dira: Edurne Elkoro, Arantzazu Zubia, Elena Lanuza eta Miren Bragado. Taldetan banatuta egiten dute lan. Bost eta zazpi urte bitarteko taldeak psikomotrizitatea lantzen dutela dio Elkorok: "Ez dute entrenamendu zorrotza egiten: dantza, erritmoa... lantzen dute".

Zazpi urtetik aurrera aparatuekin hasten dira. "Federazioak esaten du zein adinekin zer landu behar den: pilota, sokak, uztaia...", dio Elkorok.

**AURTENGO SARIAK**

Elkororen esanetan, gero eta jende gehiago dabil gimnasian eta hori da onena. Bestalde, aurten Kadete B mailako neskek Euskadiko txapelketa irabazi dute taldeka, eta Nerea Otxoa bosgarrena izan da gazte mailan.

**AEROBIC-A**

Dragoi taldeak aerobic taldea ere badauka. "Kirol ikusgarria da", dio Elkorok. Uda ostean, irailean hasiko dira entrenatzen.



**Eneritz eta Maitane**
Arrasate

"Gehien gustatzen zaiguna da lagunen artean ondo pasatzen dugula. Aparatuak erabiltzen ditugu, baina oraingoz pilota bakarrik. Datorren urtean jarraitu egingo dugu".



**Maialen eta Oihana**
Arrasate

"Beroketak egin ditugu, bukaerako dantza eta baita banakakoa ere. Dagoeneko erabiltzen ditugu aparatuak eta uztaia gustatzen zaigu gehien, horixe da-eta samurrena".



**Maika, Leire, Maite eta Leire**
Arrasate

Lehenengo mailan hasi ziren gimnasian goiko neskak, eta dagoeneko hiru urte egin dituzte. "Gehien gustatzen zaiguna da lagunekin ondo pasatzen dugula. Oraindik ez ditugu aparatuak erabiltzen. Datorren urtean hasiko gara, pilotarekin; batzutan uztaia erabili izan dugu", dio laukoteak. Erakustaldi amaieran egin duen euriaz galdetuta, "pena" izan dela azaldu digute lau gimnastek.



**Nagore**
Arrasate

"Aparatuetatik zinta da gehien gustatzen zaidana, baina ondoen mazoarekin moldatzen naiz. Gipuzkoako lehiaketan parte hartu izan dut. Aurtengoa izan da nire azkeneko urtea gimnasian".

**SORALUCE S. COOP.** > EMAKUMEAK

# Leire Olaberria txirrindulari olinpiarra sartu zen lehenengo Osintxuko helmugan

Pistako denboraldia amaituta, Debabarrena taldearekin dabil Olaberria errepideko lasterketetan

Osintxuko proba Euskadiko txapelketarako seigarren lasterketa puntuagarria izan zen

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Leire Olaberria nagusitu zen zapatuan Osintxun jokatutako nesken txirrindulari lasterketan. Maila bikaina du Ikaztegietako txirrindulariak; hala, arazo barik irabazi zuen esprintean.

**ZIKLISTA ASKO**

Lehenengo aldia da Lokatzak emakumeen lasterketa bat antolatzen duena. "Orain arte Osintxun egin izan den ziklokrosa aurten ez da antolatu, eta haren ordez emakumeen lasterketa egin da", azaldu zuen Unai Azurmendi antolakuntza taldekoak.

Gehienetan emakumeak gizonezkoekin batera irteten dira, eta ondorioz emakumeen partehartzea txikia izaten da. Zapatuan, baina, emakumeek bakarrik parte hartu zutenez, partehartzea handia izan zen: 75 lagunek eman zuten izena.

**MAILAKA**

Elite mailako neskak irten ziren lehenengo. Osintxu eta Bergara artean bi itzuli egin ostean gazte mailako neskak gehitu zitzaizkien hasieratik lasterketan zeuden emakumeei. Ondoren, Zubillagaraino joan ziren eta hurrengo itzulian kadete mailakoak sartu ziren lasterketara. Azken itzulia Osintxu eta Zubillaga artekoa izan zen.

Azken itzuli horretan taldetxo batek ihes egin zuen tropel nagusitik, tartean zegoen Leire Olaberria irabazlea. Osintxuko helmugan esprintean jokatu zuten lehenengo postua; Olaberria izan zen azkarrena, Debora Galvezen aurretik. Gipuzkoarrak 02:19:04ko denbora egin zuen. Hirugarrena Ane Santesteban izan zen.

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

Osintxuko lasterketa Euskadiko txapelketarako puntuagarria da. Bederatzi proba dira denera, eta Osintxukoa seigarrena izan da. Orain arte jokatu dituzten probak kontuan hartuta, elite mailan txapelketako liderra da Cristina Alcalde.




Leire Olaberria eta Debora Galvez esprintean, osintxun. A.E.

**GAZTE MAILA**

Gazte mailan Tania Calvo izan zen azkarrena –01:42:07–; bigarren Irene Usabiaga sartu zen eta hirugarren Dorleta Eskamendi. Hirurek denbora berdina egin zuten helmugan.

Euskadiko txapelketari dagokionez, Tania Calvo Osintxuko txapelduna da sailkapen orokorrean ere lehenengoa.

**KADETE MAILA**

Guttrans taldeko Alicia Gonzalez izan zen kadete mailako azkarrena. Maite Hernandez izan zen bigarrena eta Zuriñe Viana hirugarrena. 57:07ko denbora egin zuten hiru txirrindulariek.

Euskadiko txapelketako liderra kadete mailan Eider Merino da, baina zapatuan ez zen Osintxuko proban egon.

**LEIRE OLABERRIA**

Pistako denboraldia amaitu berri du Olaberriak: "Udazkenera arte geldi egon beharrean errepideko lasterketak egitea pentsatu dut", azaldu du. Olaberriaren asmoa da gorputzaldia ez galtzea, eta 2012ko Londresko olinpiar jokoetan parte hartu ahal izateko puntuak lortzea. Bada, bide onean doa gipuzkoarra.

## Elite mailako sailkapena

| | |
|---|---|
| 1. Leire Olaberria | 02:19:04 |
| 2. Debora Galvez | 02:19:04 |
| 3. Ane Santesteban | 02:20:07 |
| 4. Dorleta Zorrilla | 02:20:07 |
| 5. Lucia Gonzalez | 02:20:07 |
| 6. Cristina Alcalde | 02:20:07 |
| 7. Judit Masdeu | 02:20:07 |
| 8. Leticia Galan | 02:20:07 |
| 9. Catalina Rayo | 02:20:10 |
| 10. Julia A. Alvarez | 02:20:10 |

Leire Olaberria > Elite mailako irabazlea

## "Banekien Galvez baino azkarragoa nintzela esprintean"

**A.E.** > BERGARA

**Beijingo olinpiar jokoetan brontzezko domina irabazi zuen Olaberriak pistan; zapatuan, Osintxun, brontzezkoa ez, lehenengo postua eskuratu zuen. Orain hasi berri da errepidean Olaberria, pistako denboraldia bukatu ostean.**

**Nolako lasterketa izan da?**

Hasieran nahiko lasai joan gara. Taldean ibili gara, baina gutxi gorabehera 50. kilometroan talde txiki batek ihes egin dugu. Helmugara Debora Galvezekin batera iritsi naiz, eta banekien bera baino azkarragoa nintzela esprintean. Esan behar da Galvez nire laguna dela eta polita izan dela biok batera iristea.

**Espero zenuen Osintxun irabaztea?**

Ez, errepideko denboraldia oraintxe hasi dut eta egia esan nire helburua ez da irabaztea, disfrutatzea baizik.

**Euskadiko txapelketan nola ikusten duzu zure burua?**

Ez ditut lasterketa guztiak jokatu, hortaz, ez dut aurrean ibiltzeko aukerarik izango.



A.E.

**TXIRRINDULARITZA** > PROBA

# Eguraldiak guztiz baldintzatu du aurtengo Quebrantahuesos lasterketa

129 debagoiendarrek eman zuten izena; baina, amaitu 75 lagunek egin dute

Debagoiendarren artean Aretxabaletako Ibon Biteri izan da azkarrena helmugan




Oñatiko lagun taldea lasterketako une batean.

OLATZ ARREGI

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Euria eta hotza. Hori izan zuten zapatuan Quebrantahuesos lasterketa entzutetsua –205 kilometro– egin zutenek. Eguraldiak ez zuen batere lagundu eta, horren ondorioz, lagun askok proba ezin izan zuten amaitu.

**129 LAGUNEN IZENA**

Aurten zozketa bidez egin dute izen-ematea; eta, ondorioz, beste urte batzuetan baino debagoiendar gutxiago egon dira irteera puntuan; hain zuzen, 129. Horietatik, baina, 75 lagun besterik ez ziren iritsi helmugara.

Lasterketa bukatu ostean, Gari Arregi bergarararekin izan ginen. Eguraldi txarraren ondorioz, beste urte batzuetan baino denbora txarragoa egin zuela esan zigun. Hala ere, gustura zegoen egindako lanarekin. "Normalean, eguraldi txarrarekin, lasai irten behar izaten da, minik ez hartzeko. Denbora txarragoa egin arren ondo ibili naiz, beste urte batzuetan bezala", esan zuen.

Somporten, esaterako, sei gradu besterik ez zituzten izan txirrindulariek.

**DEBAGOIENEKO ONENAK**

Aretxabaletako Ibon Biteri izan da debagoiendarren artean azkarrena; haren atzetik Eskoriatzako Joseba Errasti sartu zen; eta, hirugarren postuan, Oñatiko Igor Kortabarria.

**TREPARRISCOS**

Quebrantahuesos probarekin batera, Treparriscos egiten da –90 kilometroko proba–. *Quebranta*-koekin alderatuta, nahiko eguraldi ona izan zuten Treparriscos lasterketa egin zutenek. "Frantzian eguraldi txarra egin du, baina Espainian ez", esan zigun Andoni Iturbe oñatiarrak. Beste urte batzuetan *Quebranta* egin izan duen arren, aurten, neskalagunarekin egin du lehenengo aldiz Treparriscos Iturbek.

Elgetatik sei lagun joan ziren Treparriscos egitera. "Formigaleko igoera oso polita eta, era berean, gogorra izan da. Taldean ibili gara denbora guztian, ez gara joan denbora egitera", dio Ainara Iribar elgetarrak. Antolakuntzaz gain, Euskal Herritik joandako ikusleek emandako animuak eskertu dituzte ziklistek.

## Quebrantahuesos 2010 lasterketako sailkapena

| ARAMAIO | |
|---|---|
| 1454. Azkarate Beitia, Cesar | 07:30:24 |
| 5017. Altuna Azkargota, Esteban | 10:50:04 |

| ANTZUOLA | |
|---|---|
| 280. Txaparro Izagirre, Iker | 06:39:48 |
| 3415. Aranguren Ezkurra, Asier | 08:45:18 |
| 3416. Errasti Jauregi, Josu | 08:45:18 |
| 3450. Arenaza, Nestor | 08:46:35 |
| 5010. Aranburu Larrañaga, Asensio | 10:46:46 |

| ARETXABALETA | |
|---|---|
| 88. Biteri Zubia, Ibon | 06:23:23 |
| 274. Urkia Zulaika, Jon | 06:39:35 |
| 3829. Garro Ugarte, Aitor | 09:05:32 |
| 3953. Larrañaga Ortueta, Unai | 09:12:04 |
| 4227. Cillaurren Arregi, Gorka | 09:29:16 |
| 4228. Herrasti Sainz, Josu | 09:29:16 |
| 4439. Rosado Carrasco, Jesus M. | 09:42:32 |
| 4451. Gomez Zabala, Mikel | 09:43:31 |

| ELGETA | |
|---|---|
| 390. Montiel Gonzalez, Manuel | 09:09:53 |
| 4804. Agirre Madariaga, Anartz | 10:13:58 |

| ARRASATE | |
|---|---|
| 281. Hierro Garcia, Juanjo | 06:39:50 |
| 474. Martinez Remedios, Juanma | 06:50:55 |
| 1729. Lasa Erle, Mikel | 07:39:06 |
| 2040 Guerrero Sanz, Juan Carlos | 07:49:57 |
| 2558. Landa Azurmendi, Jose Miguel | 08:09:59 |
| 3133. Remon Sanchez, Manu | 08:33:19 |
| 3499. Merino Santamaria, Jose Ignacio | 08:48:56 |
| 4008. Iria, Jon | 09:15:53 |
| 4030. Lezea Iriarte, Mikel | 09:17:22 |
| 4357. Alonso Garcia, Asier | 09:36:31 |
| 4358. Larrea Hermida, Iñaki | 09:36:31 |
| 4359. Castillo Santamarina, Javier | 09:36:36 |
| 4651. Irizar Saborido, Juan Antonio | 09:58:58 |

| BERGARA | |
|---|---|
| 507. Zanguitu Gil, Xabier | 06:52:34 |
| 535. Arregui Beraza, Garikoitz | 06:54:17 |
| 1048. Aguirrezabal San Miguel, Igor | 07:15:07 |
| 1053. Arana Oregi, Joxu | 07:15:13 |
| 1177. Lamikiz Etxeandia, Luis Maria | 07:19:27 |
| 1354. Ortiz Rodriguez, Oscar | 07:26:12 |
| 1373. Goitia Zelaya, Iosu | 07:27:24 |
| 1432. Igarza Iñarra, Felix | 07:29:32 |
| 2160. Martin Manzanal, Jose Manuel | 07:54:20 |
| 2309. Zabaleta Pais, Jose Javier | 07:59:26 |
| 2810. Alberdi Unzurrunzaga, Bigen | 08:20:01 |
| 2890. Marton Otamendi, Jon | 08:23:18 |
| 3320. Aranburu Murguizu, Jose Ignacio | 08:41:37 |
| 3546. Eguren Laskurain, Xabier | 08:51:19 |
| 4018. Larrañaga Larrañaga, Gorka | 09:16:45 |
| 4019. Larrañaga Retegi, Mikel | 09:16:45 |
| 5104. Elkoroberezibar Umerez, Ibon | 11:13:26 |

| OÑATI | |
|---|---|
| 116. Kortabarria Paredes, Igor | 06:26:03 |
| 389. Arregi Urzelai, Aitzol | 06:45:56 |
| 566. Zugasti Arregi, Jose Maria | 06:55:22 |
| 1186. Perez Diez, Cayetano | 07:19:58 |
| 1198. Urtaza Agirrezabal, Aitor | 07:20:28 |
| 1210. Lertxundi Ugartemendia, Jose M | 07:21:01 |
| 1518. Garcia Moreno, Jabier | 07:33:09 |
| 1753. Gartzia Urtaza, Andoni | 07:38:20 |
| 1749. Arregi Biziola, Manu | 07:39:50 |
| 1936. Jausoro Murguiondo, Iker | 07:45:57 |
| 2066. Zubeldia Plazaola, Miren | 07:51:13 |
| 2296. Etxeberriarteun Uribetxe., Jose Luis | 07:58:59 |
| 2641. Villar Umerez, Jon | 08:12:30 |
| 2697. Sierra Garcia, Jose Antonio | 08:15:29 |
| 2770. Laskurain Markuleta, Iker | 08:18:26 |
| 2791. Maiztegi, Roberto | 08:19:14 |
| 2888. Jausoro Murguiondo, Ibon | 08:23:14 |
| 3086. Guridi Urcelay, Gaizka | 08:31:37 |
| 3281. Axpe Ezpeleta, Patxi | 08:39:41 |
| 4524. Urteaga Bikuña, Iñaki | 09:49:04 |
| 4525. Martin Peralta, Ainhoa | 09:49:07 |
| 4600. Txintxurreta Galdos, Juan Carlos | 09:54:23 |
| 4688. Txintxurreta Igartua, Roberto | 10:01:32 |

| ESKORIATZA | |
|---|---|
| 89. Errasti Iriarte, Joseba | 06:23:24 |
| 322. Gallastegi Goikolea, Emete | 06:41:27 |
| 2068. Galarraga Beitia, Iker | 07:51:13 |
| 2514. Uribe Beristain, Goio | 08:08:23 |
| 3952. Leturiaga Letona, Jon | 09:12:03 |

OHARRA: Argitaratu ditugun postuak sailkapen orokorrekoak dira, ez dira mailakakoak.

ITURRIA: *WWW.QUEBRANTAHUESOS.COM*



Gustura lehiatu dira gaztetxoak elkarren kontra Labegaraietan. MAIDER ARREGI



Baskonia lehengo eta oraingo kamisetak nagusi kantxan. M.A.



Saskibaloi zaleak nabarmen ugaldu dira azken boladan. M.A.

**SASKIBALOIA** > JARDUNALDIAK

# Gaztetxoek saskibaloiaren aldeko apustua egin dute

Saskibaloia indartzea da asmoa eta lehen aldiz, eskola bat jarriko da martxan datorren urtean

Ekainaren 22tik 27ra bitartean, makina bat jardunaldi eta ekintza egongo dira Bergaran

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Giro ezin hobean, 200 bat gaztetxo batu ziren Labegaraietako kiroldegian zapatu goizean. Caja Laboral-Baskoniak zaletasuna piztu eta nabarmen hazi duela saskibaloirako grina begi bistakoa da. Hala ere, gaztetxo asko Realeko kamisetarekin ikusi genituen saskibaloi jardunaldietan. "Realeko kamiseta daramat baina nire kirol gogokoena saskibaloia da. Baskoniaren partiduak ere jarraitu ditut eta saskibaloi jokalaria izan nahiko nuke", kontatu zigun baloia esku artean eta etengabe saskiratzeak egiten ari zen gaztetxo bergararrak. Futbolaz gain beste kirol bat ere badagoela konturatu direnak asko dira, eta saskibaloiak hartu duen indarra nabarmendu digu Marian Mellado Bergara Saskibaloi taldeko juntako kideak. "Datorren urtean lehen adiz, saskibaloi eskola jarriko dugu martxan. Aurten, 110 gaztetxo izan ditugu eta gehiago batzea da gure asmoa".

**SASKIBALOI ASTEA**

Bihar, Zabalotegi aretoan, saskibaloiaren inguruko filma eskainiko dute, 19:00etan. Sarrera doakoa da. Hilaren 24an, berriz, mahai ingurua izango da, 19:00etan, Miguel Altunan. Pablo Laso bertan izango da eta gonbidatu sorpresa bat ere etorriko dela iragarri dute. Barikuan, disko gaua izango da eta txosna jarriko dute San Martin plazan. Aste bukaeran, berriz, 3x3 txapelketak jokatuko dituzte: zapatuan, senior eta juniorren txanda izango da, 16:00etan hasita; domekan, berriz, alebin, benjamin, kadete eta infatilena. Informazio gehiago *www.bergarake.com* webgunean dago eskuragarri. Bertan, gainera, izena ere eman dezakete txapelketan parte hartu gura duten gaztetxoek.

Kalean egingo dute saskibaloi jaia eta gonbidapena herritar guztiei egin nahi dietela nabarmendu dute.

**Iñaki Olaetxea** > Bergara Saskibaloi taldea

## "Azken urtean, indartu egin da saskibaloia ibarrean"

**M.A.** > BERGARA

**Iñaki Olaetxea Elorriokoa da. Bergaran jokatzen du senior mailan eta gaztetxoendako saskibaloi jardunaldiak prestatzen buru belarri ikusi dugu.**

**Zelako erantzuna izan dute orain arte egindako jardunaldiek?**

Gaztetxo asko animatu dira. Lehenengoan 165 lagun batu ginen; bigarren honetan, gehiago izan dira animatu direnak eta benetan pozik gaude. Oso erantzun ona izan dugu; bete egiten gaituzte umeek.

**Zein helburu lortu nahi duzue?**

Txikitatik, saskibaloiarekiko grina piztu nahi diegu umeei. Saskibaloiak dauzkan arauak eta baloreak barneratu ditzatela nahiko genuke eta ilusioa berriro piztea.

**Caja Laboral-Baskoniaren garaipenak ere eragina izango zuen, ezta?**

Bai. Futbolaz gain beste kirol bat ere badagoela konturatu direnak asko izan dira Baskoniari esker. Askok erakutsi dute interesa.

**Nola ikusten dituzu Debagoieneko taldeak?**

Sasoi onean daude, bai Aloña eta baita Mondra ere. Bergarak ere urte zailak pasa ditu baina badoa pixkanaka goraka igotzen.

**Eta datorren urtera begira, zein da zuen asmoa?**

Ahalik eta talde gehien atera nahi ditugu aukera izan dezagun goian izateko. Gaztetxo askok eman du izena eta ea talde dezente sortzen diren. Txikitatik sustatu eta indartu nahi dugu saskibaloia.



M.A.

**Jokalari handiak, kalitatezkoak badaude?**

Bai. Hortxe ditugu, Ander Gartzia, Igor Moratxo eta Antxon Hernandez, beste askoren artean. Kalitatezko jokalariak dira eta kanpoko klubetara joaten dira, tamalez. Ea datozen denboraldietara begira, gurean gelditzeko aukerarik duten. Jokalari apartak asko ditugu Debagoienean eta polita izango litzateke gurean jokatzen ikustea. Zalantza gabe horrek zaletasunean ere eragingo izango luke.

**ERREMONTEA** > FINALA

# Urtasun eta Lizaso nagusitu dira Bergarako txapelketan

Egubakoitzean jokatutako finalean 29-40 irabazi zuten Etxeberria IV. eta Urrutiaren aurka; pilotalekura jende gutxi joan zen

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA
Bergara Hiria erremonte txapelketak baditu irabazleak. Gorka Urtasun eta Iñaki Lizaso 29-40 nagusitu ziren Etxeberria IV. eta Migel Mari Urrutiaren aurka.

Frontoi txikian ere erremontean ikuskizuna eman daitekeela erakutsi zuten pilotariek. Batez ere, Lizasok egindako lana da aipagarria. Esan behar da atzelaria ezin hobeto ibili zela egubakoitzeko finalean.

**10 TANTOKO ALDEA**
Partiduko lehenengo minutuetan indarrak nahiko parekatuta egon ziren. Baina, behin Urtasun eta Lizasok 10 puntuko aldea hartu zutenean, samur irabazi zuten lehia. Aurrean, bai Urtasun eta baita Etxeberria ere oso ondo ibili ziren.

**JENDE GUTXI**
Martin Etxeberria Bergarako kirol zinegotziaren ustez, finalerdietako ikuskizuna finalekoa baino politagoa izan zen. Finaleko giroaz galdetuta, dio orokorrean jende gutxi joan dela erremonte partiduak ikustera. "Ez dakit zergatik den, baina erremontea ikustera jende gutxi etortzen da, eta esan behar da oso ikuskizun polita dela", azaldu digu Etxeberriak.

**DATORREN URTEKOA, ZALANTZAN**
Hasieran zapatuetan jarri zituzten partiduak baina, jende gutxi joaten zenez, egubakoitzetara aldatu zituzten. Erabakia "ona" izan zela uste du Etxeberriak.

Datorren urtean txapelketa egingo ote den galdetuta, Etxeberriak zail ikusten duela dio.


Erremonte jokalaria pilotari emateko gertu. JOSETXO ARANTZABAL


Jokin Etxabe Olakuako helmugara sartzen, eskua igota. A.E.

**TXIRRINDULARITZA** > KADETEAK

# Jokin Etxabe bergararra izan zen azkarrena Oñatiko proban

Gainera, Etxabek mendiko saria ere eroan zuen; hasieran, baina, nahasketa bat tarteko, Josu Urreztarazuri eman zioten garaikurra

**A.E.** > OÑATI
Esprintean amaitu zen zapatuan Oñatiko kadete mailako proba. Azken metroetan nagusi, Bergarako Lokatza taldeko Jokin Etxabe izan zen. Bergararrak ordu bat eta 14 minutu behar izan zituen 57 kilometroko lasterketa amaitzeko. Haren atzetik sailkatu ziren Josu Urreztarazu eta Mikel Irizar –aita oñatiarra du hark–.

75 txirrindulari atera ziren Olakuako irteera puntutik. Txirrindulariek Zubillaga aldera hartu zuten. Lehenengo kilometroetan taldea batuta joan zen. Zubillagatik Bergarara, han buelta eman eta berriro Oñati aldera hartu zuten txirrindulariek.

"Udana igotzen hasi garenean anaiak lagundu dit eta ihes egin ahal izan dut. Beste txirrindulari bat gehitu zaigu goranzkoan eta beste bat beheranzkoan", azaldu zuen Etxabek karrera amaieran.

**MENDIKO SARIA ERE BERARI**
Jokin Etxabek, gainera, mendiko saria ere jaso zuen zapatuan. Lehenengo momentuan nahasketa bat egon zen eta garaikurra Josu Urreztarazuri eman zioten, baina, gero, erabakia zuzendu zuten antolatzaileek.

Bestalde, Oñatiko txirrindulari onenaren saria Unai Arabaolazak eroan zuen. 65 ziklistek amaitu zuten proba zapatuan.

**MENDIA** > KARAKORUM

# Naturgas-Broad Peak espedizioa, girotze lanetan

Iñurrategik, Vallejok eta Zabaltzak Pastora gailurra egin dute (6.379 metro)

**A.E.** > BERGARA
Broad Peakeko oinarrizko kanpalekura ekainaren 15ean iritsi ziren mendizaleak. Han bi egun egin ostean, 6.379 metroko Pastora mendia egitera irten ziren ekainaren 17an.

**PASTORA GAILURRA**
Khakhal glaziarrean barrena abiatu ziren, 5.400 metroan dagoen goilautada bateraino. Han igaro zuten lehen gaua. Hurrengo goizean, ekainaren 18an, ia Pastora gailurreraino igo ziren, baina atzera egin eta 5.900 metroan ezarri zuten bigarren gauerako denda. Ekainaren 19an lortu zuten tontorra zapaltzea. Naturgas-Broad Peak espedizioko kideak oso pozik daude girotze egun hauetako emaitzarekin.


FELIS BELTRAN DE HEREDIA

## 169 lagun Murrukixoren mendi martxan

Murrukixo M.E.k atzo egindako VI. mendi martxan giro eskasa izan zuten: lainoa, euria eta hotza. 169 lagun atera ziren Aretxabaletako Herriko Plazatik eta Urkulutik gora, Kurtzebarritik bueltan, itzuli. Ezusteko barik bukatu zuten guztiek eta lehenengo mendizalea oraindik helmuga zabaldu barik zegoela iritsi zen, 10:50 inguruan.

**Txomin de Vega** > BTT jaitsieran Euskadiko txapeldunordea

# "Jendeak uste du pedalei ez zaiela eman behar, baina eman behar zaie"


Txomin de Vega bizikletarekin. JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

**La Arboledan –Bizkaia– jokatutako Euskadiko Txapelketan bigarren tokian sailkatu da Txomin de Vega elgetarra. Bizikleta jaitsierak egiten ditu, gurean oso ezaguna ez den kirola. Bizitakoak kontatu dizkigu.**

**Zorionak! Espero zenuen horrelako emaitzarik lortzea?**

Eskerrik asko! Sekula ez dakizu zela aterako zaizun lasterketa, hortaz, ez nekien zein emaitza lortuko nuen. Baina, egia esan, espero nuen aurrean ibiltzea.

**Ez da lehenengo aldia Euskadiko txapeldunorde titulua eskuratzen duzuna.**

Ez, orain dela hiru urte ere eskuratu nuen, baina orduan 23 urtez azpikoen mailan jokatu nuen. Ordutik ez dut horrelako emaitzarik lortu; bosgarren geratu nintzen behin, esaterako.

**Gurean ez da kirol ezaguna zuk praktikatzen duzuna. Ezagutzen ez dutenendako, zer dira BTT jaitsierak?**

Izenak dioen bezala, jaitsierak dira. Bizikletan egiten da, zirkuitu batean. Jendeak uste du ez zaiela pedalei eman behar, baina eman behar zaie. Aldaparik ez da igo behar, gehiena aldapa behera edo lauan izaten da.

Zirkuitu bat dago markatuta eta bi itzuli egin behar dira zirkuituan. Bi itzuli horietako onena kontatzen da. Mendian da, ez asfaltoan.

**Ziklokrosekin alderatuta, ze ezberdintasun du kirol honek?**

Sekula ez da egoten aldapa gorarik, eta bizikleta ere ezberdina izaten da.

**Nola hasi zinen kirol honetan?**

Betidanik gustatu izan zait bizikletan ibiltzea. Lehen, futbolean jokatzen nuen, hura utzi nuenean hasi nintzen honetan.

Txikitatik gustatzen zitzaidanez, probatu egin nuen eta hemen nabil.

**Badago hemen inguruan entrenatzeko moduko leku egokirik?**

Ez, ez dago leku egokirik. Ibiltzen garenok egokitu ditugun lekuak daude, baina arazoak izaten ditugu. Sail asko pribatuak dira eta arazoak izaten ditugu jabeekin. Inork ez du nahi izaten bere lurretan jendea horrela ibiltzerik.

**Txapelketa hau La Arboledan jokatu zen. Ondo egokitutako zirkuitua dago han?**

Bai, zirkuitua dago eta, gainera, funikularrak dituzte erremonte lanak egiteko.

**Debagoienean zu bakarrik ibiltzen zara kirol honetan ala badago beste inor?**

Antzuolan baditut lagunak, eta baita Elgetan bertan ere. Egia esan, jende gutxi ibiltzen gara bizikleta jaitsierak egiten, baina elkartu gara taldetxo bat.

**Materialari dagokionez, bizikleta berezia behar da jaitsieratarako?**

Bai, guztiz ezberdina da bizikleta. Angelua, geometria, amortiguadorea, orkillia... dena da ezberdina. Bizikleta hauek propio karrera hauetarako dira.

**Bestalde, kirol honetan zer da garrantzitsua?**

Jaitsierak egiteko beldurra baldin badaukazu gaizki hasten gara. Gainera, bakoitzak jakin behar du norberaren muga non dagoen.

Bestalde, teknika handia eskatzen duen kirola da. Beste diziplinetan baino gehiago: saltoak... Osoagoa da.

**Teknikaz gain, zer da entrenatzen duzuena horrelako probetan parte hartzeko?**

Teknikaz gain, fondoa ere entrenatu beharra dago. Nik, adibidez, bizikletan ibiltzen hartzen dut fondoa.

**Debagoienean edo inguruan badago BTT jaitsierarik?**

Inguruan ez dago. Aurreko astean, esaterako, Segovian, La Pinillan egon ginen. Hemen jokatzen direnak Open de Euskadiko txapelketak izaten dira. Hemen, gertuen, Legutioko lasterketa eta Zarautzeko lasterketa daude, baina Debagoienean ez dago lasterketarik.

Openeko lehenengo lasterketa La Reinetan – La Arboleda– izan zen, Euskadiko txapelketa izan zena.

**Sailkapena bera denez, Open de Euskadin bigarren tokian izango zara, ez da hala?**

Bai, bigarren tokian nago. Orain, beste lau lasterketa geratzen dira.

**Kirol honetan zabiltzatenok badaukazue Debagoienean taldea sortu edo lasterketaren bat antolatzeko asmorik?**

Gustatuko litzaiguke zerbait antolatzea, baina... ez da erraza. Lagun gutxiren artean egiteko lan asko dago.

**"Hemen ez dago zirkuiturik, ibiltzen garenok egokitu ditugun tokiak daude "**

**"Teknika handia eskatzen duen kirola da, beste diziplinetan baino gehiago"**

# Carrefour
## GORBEIA

Ekainaren 23ra arte

# Prezio baxuena Carrefour bermearekin

## Carrefour Discount aurkezten dizugu

Zure etxeko beharrak beteko dituen produktu sorta dugu. Elikadura, bazarra, produktu freskoak, perfumeria eta drogeria.

300 artikulu baino gehiago, Carrefourren bermearekin, prezio merkeenean.




**Oliba-olio bizia edo leuna**
Carrefour Discount
1 l
**2,25€**



**Oilasko osoa, garbia**
Carrefour Discount
(Bandeja unitate bat)
Kiloa
**1,79€**




**LCasei** Carrefour Discount
100 ml
6 unitateko pack-a
**1,43€**
Litroa 2,38€-tan ateratzen da




**Esne osoa, semi edo gaingabetua**
Carrefour Discount
1 l
**0,48€**




**Maria Dorada gaileta**k
Carrefour Discount
600 g
**0,55€**
Kiloa 0,92€-tan ateratzen da




**Kafe ehoa naturala edo nahastua**
Carrefour Discount
250 g
**0,84€**
Kiloa 3,36€-tan ateratzen da




**Kainabera-azukre zuria**
Carrefour Discount
1 Kg
**0,69€**




**Sukaldeko papera**
Carrefour Discount
4 erroiluko pack-a
**1€**
Erroilua 0,25€-tan ateratzen da

Carrefour ondo datorkizu.

**www.carrefour.es** zure hipermerkatua 24 orduz zabalik

**HEZIKETA** > SEXUALITATEA

# Zenbat urterekin hitz egin behar diegu sexualitateari buruz?

Larraitz Arando sexologoaren esanetan, umeek esango digute noiz eta zer jakin nahi duten; gakoa da eskatutakoan azalpen baliagarriak ematea



Bi ume elkarri musua ematen. EMILIO DEL PRADO

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Gomendio taularik ez dago. "Ez dago praktika bakoitza ulertzeko adin egokirik", esan du Larraitz Arando sexologoak. "Haur batzuek jakin-min handiagoa dute beste batzuek baino, eta guraso batzuek kontatzeko nahi handiagoa dute beste batzuek baino. Nola kontatzen den da kontua".

**NOIZ KONTATU**

Adituaren esanetan, haurrak berak esango du zer jakin nahi duen eta noiz, hitzez ez bada, bestela. "Eta hark esango digu emandako azalpena balekoa den edo gehiago jakin nahi duen". Azalpenak bortxatzearen arriskuaz ere ohartarazten du Arandok: "Ez du mesederik egiten. Haurra larritzen bada, dagoen horretan uzteak ez dio kalterik egingo".

**AZALPEN ARRUNTAK**

Gauza batzuk kontatzea kosta egiten zaigu eta adituak dio sexualitatearekin lotutako zenbait hitz ahoskatzea kosta egiten zaigula. Ahalik eta xumeen kontatzeko gomendioa egiten du Arandok, esplikazio arruntenak dira-eta baliogarrienak haurrendako. "Ukitzen hasi, musuka, alua umeldu, pitilina tente eta bata bestearen barruan sartzen". Azalpen sinple hau ia adin guztietako haurrek uler dezakete".

**HEZIKETA** > GATAZKAK

## Gatazken ondotik, onena, komunikazioa zabaltzea

**L.Z.** > ARRASATE

Normala da seme-alaben eta gurasoen artean gatazkak egotea; izan ere, bakoitzak ezberdin antzematen du errealitatea. Informazio guztia ez izateak ere eragin zuzena dauka. Iritzi eta epai asko egiten dira ekintzen parte bat bakarrik ezagututa, eta hori ere gatazka sortzeko arrazoia izaten da. "Arazoa zein den ondo diagnostikatzea eta konponbidea emateko alternatibak bilatzea ezinbestekoa da", esan du Euskadi Irratiko *Ilunpean* saioan Xurdana Imatz psikologoak.



Haserre. EN MIS RETINAS

**ENTZUTEAREN GARRANTZIA**

Seme-alaben adinaren arabera gatazkak arrazoi ezberdinengatik sortuko dira. "Haserrealdiak normalak izaten dira; esan beharrekoak eta gehiago esan ohi dira", esan du Imatzek. Garrantzitsua horren ondoren ematen den prozesua dela defendatu du psikologoak. "Ezinbestekoa da komunikazioa atzera ere lehenbailehen zabaltzea. Gaitasuna izan behar dugu ikusteko esan ditugunetatik zeintzuk egon diren ondo eta zeintzuk ez. Garrantzitsua da gero besteari, seme-alaba dela edo gurasoa dela, gaizki egindakoak onartzea. Hori egin ezean gatazkak enkistatu egiten dira", dio adituak. "Seme-alabek beharrak eta nahiak dituzte eta entzun egin behar ditugu. Sentimenduak eta kezkak konpartitzeko espazioak sortu beharko genituzke".

**ELIKADURA** > IKERKETA

## Soja luzaro kontsumitzea kaltegarria izan daiteke

**L.Z.** > ARRASATE

Oraindik ez dago emaitzarik, ikerketa prozesuan dihardute. Horregatik, adituek gomendatzen dute sojaren kontsumoa beste elikagai batzuekin txandakatzea. Olo edo avena, arroz eta almendra esnea gomendatzen dituzte.

**UME ALERGIKOAK**

Gizartearen %2tik %5era bitartean alergia dio behi esneari, asko eta asko umeak dira. Ohikoena, gaur egun, ume horiei sojarekin egindako produktuak eskaintzea da. Soja, baina, fitoestrogenoetan aberatsa da eta ikerlariak aztertzen ari dira luzaroan kontsumitzeak ugaltze-sisteman eragina duen.

Horrez gain, adituek kaltzio ekarpena ziurtatzeko gomendioa egiten dute. Ume horiei sardina txikiak, fruitu lehorrak, zereal integralak eta lekaleak eskaintzea oso aproposa dela diote.

**ELIKADURA** > UDAN

## Opor sasoian ere umeen elikadura zaindu behar da

**L.Z.** > ARRASATE

Udan gutxiago jaten dugu. Etxetik kanpo ematen dugu denbora luzea eta otorduak prestatzeko garaian inprobisazioa izaten da sarri nagusi.

Udan oso egokiak dira pasta, lekaleak, patatak, arroza eta barazkiak. Etxetik kanpo bazkaldu behar badugu, egokiak dira arrautzak, arrain egosia, oilaskoa, gazta, jogurtak eta entsaladak. Azken horiek oso gomendagarriak dira udan; izan ere, askotariko osagarriak onartzen dituzte.

**ORDUTEGIAK ERRESPETATU**

Hidratazio maila ez galtzeko, adituek gomendatzen dute prestatzen errazak diren betiko jakiak, fruta zukuak eta, neurrian, izozkiak gomendatzen dituzte. Hozkailuan beti eduki behar dugu fruta freskoa, eta garrantzitsua da, era berean, otorduen ordutegia errespetatzea.



Neskatila sagarra jaten. OLLIE T.

> OSASUNA

### Gerble etxearen txokolatez gaineztatutako arrozezko opiltxoek erreakzio alergikoa sortu dute

Urgentziazko oharra kaleratu du elikadura segurtasunerako Espainiako agentziak, AESANek. Alergia kasu bat antzeman dute eta opiltxo horiek analizatzerakoan konturatu dira etiketan agertzen ez diren laktosa proteinak dituela. Produktua salmentatik kendu dute eta Gerble etxeak blokeatu egin ditu biltegietan dituen existentziak. Izan liteke, baina, kontsumitzaileek etxean produktu hori izatea. Alergikoei ez jateko gomendioa egiten diete.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



> ABESBATZAK
Goikobalu Txikik eta Gaztek kontzertua eskainiko dute gaur > 30



> GAZTETXEA
10. urteurreneko ospakizunei bukaera borobila Bergaran > 31



> KONTZERTUA
Aretxabaletako 'Zakone' bakarlariak etxean egin du emanaldia > 31



Musikaren erritmora, dantza ere egin zuten modeloek. Ile-ordeek eta fantasiazko makillajeek jendearen txalo zaparradak eragin zituzten. MAIDER ARREGI

**MUNTAIA**
Musika, koreografia sentsuala eta kolorea, arroparekin batera

**MODATIK HARATAGO**
'Rock it all' modaz gain, kalean dagoena, egunerokoa ere bada

# 'Mondrako' diseinuak ikuskizun bilakatuta









Estilo urbanoko arropekin hasi eta giro berezietan janzteko diseinu dotoreak izan ziren ikusgai 3 aretoan, zapatuan. MAIDER ARREGI

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

3 aretoa bete zuen jendeak txalo artean hartu zuen Amaia Albes eta Ane Garaik egindako lana. Arrasateko moda urbanoa eta rockeroa ekarri zuten ibiltokira herriko gazteek. Guztira, 13 jantzi eta sorpresa bat: *body painting*-a zeraman kutsu mitologikodun modeloa. Ez zen ohiko desfilea izan. Musika eta koreografiak, fantasiazko makillajeak eta eszenografiak, aho bete hortz utzi zituzten bertaratutakoak.

**"ROCK IT ALL'**

*Rock it all* da euren marka eta moda rockeroaz gain, estilo urbanoa ere badauka. Albesek aitortu digu ez dituztela tendentziak jarraitzen eta diseinatzerako orduan, egunerokoan, kalean ikusten dutena hartzen dutela oinarri. "Nahi duguna egiten dugu eta barrutik irteten zaiguna. Asmoa da gero arropa salgai jartzea eta jendeak egunerokotasunean ere erabiltzea". Baina, moda urbanoaz gain, gaueko eta okasio berezietarako arropa ere izan zen ikusgai. Gerruntze eta tulak, algodoia ordezkatu zuten desfilearen bigarren zatian. Eguneroko estiloa, gaueko giro rockeroan murgildu zen.

Cristina Garcia eta Zuriñe Lopez makillatzaileak ere gustura, egindako lanarekin. "Fantasiazko makillajea egin dugu; ibiltokian inpaktua eragiteko. Kolore biziak erabili eta ohikotasunetik irtetea nahi genuen ikuskizuna eskaintzeko". *Body painting*-ak eman die lan handiena; bost ordu egon dira modeloaren gorputza margotzen. "Izaki mitologiko batean oinarritu gara eta, hori eredu hartuta, gure erara egokitu eta sentitu dugun moduan margotu dugu modeloa".

Diseinuren bat gustuko badugue, beraz, zuen armairuetan izateko aukera eskaintzen dizuete bi diseinatzaile arrasatearrek. Nahi duenak, bere neurrira egindako jantzia izan dezake.

**Mariatxen Urkia** > Leizarra musika eskolako zuzendaria

# "Inprobisazioa eta sorkuntza lantzen duten taldeak ditugu"




Mariatxen Urkia pianoaren aurrean, egubakoitzean. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

**Aretxabaletako Leizarra musika eskolak ikasturte amaierako kontzertua emango du bihar, herriko plazan, 18:00etan. Mariatxen Urkiaren gidaritzapean, musika eskolak 25 urte beteko ditu datorren urtean.**

**Hainbat egoitza izan ditu musika eskolak, ezta?**

Bai, lehenengo Bizkaia kalean, euskaltegia dagoen lekuan; gero, kuartel zaharrean; eta azken bi urteotan, Arkupe kultur etxean. Hasieran, kexatxo batzuk izan genituen baina gela erosoak ditugu eta ederto gaude hemen.

**Zenbat lagun dituzue matrikulatuta?**

Matrikulazio kopurua 500 inguru da, baina pertsona kopurua 300; batzuek matrikula bat baino gehiago dutelako. Hala ere, asko da, kontuan hartuta Aretxabaleta ez dela 7.000 biztanlera iristen.

**Orduan musikarako zaletasuna dute aretxabaletarrek?**

Baietz esan daiteke, edo ohitura ere izan daiteke musika eskolara etortzea. Azken urteotan mantendu egin da kopurua.

**Gehiengoa umeak dira, baina helduek ere badute lekua.**

Bai horixe; helduek, erretiratuek, atzerapenak dituztenek… guztiek dute lekua gurean. Helduen kopuruak gora egitea gurako genuke, taldeak osatzen lagunduko lukeelako horrek, banda esaterako, baina denbora gutxirekin ibiltzen dira askotan.

**Hainbat talde dituzue osatuta, banda esaterako.**

Bai, lehen pausoak ematen dabil. Oso gazteak dira eta poliki egingo dute aurrera, baina gustura dabiltza eta hori garrantzitsua da. Arazoa da 18 urte egindakoan, asko kanpora doazela ikastera eta utzi egiten dutela.

> **"Banda lehen pausoak ematen dabil, oso gazteak dira eta poliki egingo dute aurrera"**
>
> **"Datorren ikasturtean musikako informatika eskolak ematen hasi gura dugu"**

Bestalde, kamara taldetxo bat ere osatu gurako genuke biolinak, txeloak… elkartuta.

**Banda instrumentu askok osatzen du eta ez da samurra izango guztiak izatea.**

Ez. Hori jakinik musika tailerretan dabiltzan 6 urteko ikasleei instrumentuak erakusten dizkiegu aukeraketa egin aurretik, tartean bandako hainbat. Aurten, gainera, batzarra egin dugu haizezko instrumentuetarako gaitasuna zuten umeen gurasoekin, anima ditzaten.

**Eta instrumentu ezberdinekin talde txikiak ere osatu dituzue.**

Bai, konboak deitzen diegu. Inprobisazioa eta sorkuntza lantzen dute, jazz doinuetatik hurbil. 16 eta 18 urte arteko gazteek osatzen dituzte eta oso talde politak ditugu orain.

**Eta dantza indartzeko ahaleginetan ere bazabiltzate.**

Hori ez da zuzena, guk lehen ere egiten genituelako kale ageraldiak, erakustaldiak… Orain Loramendi Dantza Taldeak zituen konpromisoak hartu ditugu, tartean Haur Dantzarien Eguna antolatzea eta Andramaixetan *Ikurrinari Agurra* egitea.

**Inbertsioak egin dituzue aurten, ezta?**

Bai, laguntzak jaso ditugu eta horiekin instrumentu berriak erosi ditugu eta ordenagailuak egokitu. Gela gehienetan ditugu ordenagailuak eta horrek beste era batera lan egiteko aukera ematen du. Gainera, datorren ikasturtera begira, musikako informatika eskolak ematen hasi gura dugu.

---

**KONTZERTUA** > ABESBATZA

## Ikasturte bukaerako kontzertua eskainiko dute Goikobalu Txikik eta Gaztek gaur

Talde ezagunen kantak abestuko dituzte eta ikus-entzunezkoa gertatu dute; Kulturateko areto nagusian da (19:00)




Goikobalu Txikiko kideak Hondarribiko haur topaketan, apirilean. GOIKOBALU

**M.A.** > ARRASATE

Ikasturtea bukaerara iritsi dela ospatuko dute Arrasateko Goikobalu Txiki eta Goikobalu Gazteko kideek. Eta urtean zehar egindakoaren laburpen kontzertua eskainiko diete gaur senide eta herritarrei. Kulturateko areto nagusian da (19:00).

**IKASTURTE BOROBILA**

Hamabost kide dituen txikien abesbatzak emango dio hasiera ekitaldiari, Amaia Aboitiz zuzendari dutela, eta lau kantu eskainiko dituzte, tartean Ken Zazpi taldearen *Ilargia* eta Mozarten *Txirula Magikoa*.

Ondoren, Rakel Murgiondok zuzendutako Goikobalu Gazte taldeak bederatzi kantu abestuko ditu, gehienak oso ezagunak: Lenon eta Mc Cartney-ren *Ez etsi*, Cold Play taldearen *Viva la vida*… 35 bat kidek osatzen du gazteen abesbatza, tartean ETBko *Oh Happy Day* saioko irabazle Jon de Andresek eta Kantu Txapelketan bigarren geratutako Bea Asurmendik. Murgiondok jakinarazi digu ikasturte polita izan dela: "Iaz 15 urte bete zituen txikien abesbatzak eta musikala gertatu genuen; Errenteriako Kantu Txapelketan zilarrezko domina lortu genuen; hainbat topaketatan hartu dugu parte…"

Ekitaldia ikasturteko argazkiekin eta bideoekin osatuko dute eta koreografiak ere landuta dituzte. Gainera, bi abesbatzek elkarrekin abestuko dituzte bukaerako kantuak: *Bi begirada zeru bat* (J. Astiazaran) eta *Nesipono no* (J. Van der Sandt).

---



Loreak dantzan Zabalotegin. JOSETXO ARANTZABAL

**IKUSKIZUNA** > 'ANIMALIAK'

## Natura deskubritzeko lana

**NON:** Bergarako Zabalotegin.
**EGUNA:** Zapatua, ekainak 19.
**ZENBAT JENDE:** 45 lagun inguru.
**IRAUPENA:** 50 minutu.

**M.A.** > BERGARA

Dantza Garaikidearen VI. zirkuitu barruan iritsi zen zapatuan *Animaliak* ikuskizuna Bergarako Zabalotegira, La Dinamika taldearen eskutik. Ume eta gurasoak elkartu ziren, eta pertsonaien joan-etorriei eta dantzei begira erabat harrapatu zituen antzezlanak.

**PARADISU GALDUAREN BILA**

Argiak, musikak, dantzak… armonia osatuz egin zuten bat *Animaliak* ikuskizunean. Hunkigarria eta, era berean, dibertigarria; paradisu galduan murgildu eta naturako izakiak deskubritzen joateko aukera eskaini zieten umeei atzo. Eta horiek barruraino sartu ziren antzezlanaren joan-etorrian.

Datorren zapatuan, hilak 26, *Gernika* ikuskizuna eskainiko du Edu Muruamendiaraz bergararrak zuzendutako Aukeran dantza taldeak pilotalekuan (22:30).

**OSPAKIZUNA** > BERGARAKO GAZTETXEA

# Hamar urteko lana ospatzeko ekintzek parte-hartze handia izan dute

Egunero antolatutako hitzaldi eta ekintzetan, 30 lagunetik gora batu direla partehartzeko eta iritzia emateko azaldu dute antolatzaileek



Zapatu gauean Fly Shit taldeak emanaldi "potentea" eskaini zuen gaztetxeko agertokian. JOSETXO ARANTZABAL

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Giro ezin hobean, gaztetxearen 10. urteurreneko ospakizunei amaiera borobila eman diete aste bukaeran. Helburuak beteta, oso pozik azaldu dira gaztetxeko kideak: "Egunero tertulia edo ekintzaren bat izan da eta 30 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte. Jendeak, bere iritzia eman du eta oso positiboa eta aberatsa izan da denondako".

Zapatuan kontzertuekin amaiera ona eta jendetsua eman zitzaion jaiari. Bertso bazkariak arrakasta izan zuen eta 50 lagun batu ziren. Aurretik, baina, herriko kaleetako giroa berotu zuten 40 bat lagunek poteoan.

Patioa grafitiekin koloreztatu zuten. Aurrerantzean, asmoa da bertan zine eta antzerki emanaldiak eta talde zein bakarlarien zuzenekoak eskaintzea. Baina, eguraldi txarragatik, oraindik ez dute estreinatu: "Eguraldiak laguntzen duenean, patioan egingo ditugu ekintzak".

**KONTZERTUEN ARRAKASTA**

Gaztetxean antolatutako zuzenekoetara jende mordoa gerturatu da. Zapatuan, DJ Elvis Cainok dantzan jarri zuen gaztetxea. Aurretik, ordea, Fly Shit taldeak, askok esperotako emanaldi potentea eskaini zuen. "Aspaldian gaztetxean zuzenekorik eman gabe geunden. Disko berria grabatzen egon gara buru-belarri eta irailerako prest izan nahi dugu, azaldu digu *Setien* abeslariak. Bergararren lan berriaren aurrerapena entzuteko aukera ere izan zen zapatuan gaztetxean. "Gure estiloa mantenduko dugu".

Domekan, Anarik zuzenekoa eskainiko du 20:00etan hasita, Txapa Irratiak antolatuta.

**KRONIKA** > 'ZAKONE' BAKARLARIA

# Barru barrukoa, sentsaziozko emanaldia

**NON:** Aretxabaletako Arkupen.
**EGUNA:** Barikua, ekainak 18.
**ZENBAT JENDE:** 30 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**MAIDER ARREGI** > ARETXABALETA

Julen Cobos Errasti, *Zakone* bakarlariak, etxean eskaini zuen zuzenekoa. Lagun eta herritarren goxotasunak lagunduta, barru barruko emanaldia eskaini zuen. Euskaraz, gazteleraz eta katalanez abestutako kantuak izan ziren entzungai. Musikaria bai, baina marinela ere bada aretxabaletarra. Egun, Bartzelonan bizi da eta Mediterraneoko doinuak, flamenkoarekin uztartzen ditu. *Antxoita del Kantabriko* azken diskoa aurkeztu zuen.

Bizitzaren erretratu gazi gozoak irudimen zorrotzez margotzen ditu bakarlariak, *Tiempos de lírica y mierda* abestian kontatzen duen moduan. Ironia, maitasuna eta eguneroko kontuak ere nagusi dira bere letretan: *Minigona*, *1,30* eta *Lua lua*.

Baina, bariku gauean, Arkupeko Zaraia aretoan, bertsio bikainak entzuteko aukera ere izan zen: Mikel Laboa, Imanol, Kiko Veneno eta Itoiz taldearena, besteak beste.

Dani Figueras gitarra-jotzaile eta konposatzailearen maisutasuna ere agerian geratu zen; trebezia handia erakutsi zuen gitarra-erakustaldian.

**'ANTXOITA DEL KANTABRIKO'**

Bat Gehio, Kataluniako eta Euskal Diasporako musikariak biltzen zituen taldeko abeslaria eta konposatzailea izan zen. *Rara avis* bat euskal musikan; Mediterraneoan bizi den *Antxoita del Kantabriko"* halaxe definitzen da. Hamaika kontzertu eskaini ditu Mediterraneoko eta Kantauriko portuetan. Bat Gehio taldearekin, beste bi lan kaleratu zituen: 2002an, *Bihar agian*; eta 2004an, *Diaspor han*.

Lan berria prestatzeko, Pataganiarantz jo zuen inspirazio bila. Bidaia luzea egin ostean, azken lana udazkenean kaleratuko du: *Antxoita del Kantabriko*. Diskoa Bartzelonan aurkeztuko du, baina, etxera ere etorriko dela kontatu digu *Zakone*-k.


Julen Cobos Errasti *Zakone*k eta Dani Figueras gitarra-jotzaileak emozioz betetako emanaldia eskaini zuten. JOSETXO ARANTZATZAL

> IKUSKIZUNA

### 'Gau magikoak Munibe plazan' arte ekitaldia, barikuan

Ramon Arantzabal arrasatearrak musika, dantza, arkitektura eta irakurketa uztartu ditu. Hala, *Gau magikoak Munibe plazan* ikuskizuna prestatu du. Arantzabalen *performance*-a hilaren 25ean ikusteko aukera izango da Munibe plazan, Bergaran.

*Finlandia* poema sinfonikoa izango da entzungai 22:30ak inguruan. Dantza eta aurora borealaren ostean, Arantzabalek egindako 17 arte lanak azalduko dira balkoietan. Aste bukaeran zehar, egunez, lanak ikusgai izango dira.

> HITZALDIA

### 'Udako solstizioa' izeneko hitzaldia bihar, Bergaran

Jardun euskara elkarteak antolatuta, kultura etxean izango da udako solstizioaren gaineko hitzaldia, 19:00etan hasita. Sarrera doan da.

Aritza Bergara idazle eta euskal kulturari lotutako ekimen ugariren sortzaileak eskainiko du hitzaldia.

Berbagai izango dituen gaien artean daude, esaterako: zeintzuk ziren herri zaharren ospakizunak eta zer zen solstizioa . Helburua da gure gazteei eta hiriko jendeari antzinako sinismenak gerturatzea eta zeuzkaten esanahiak ezagutaraztea. Ilustrazioen bidez azalduko ditu hizlariak gaiak.

ASTE BUKAERA...

## Jose Riviererekin



Jose Riviere –bigarrena, ezkerretik–, koadrilako lagunekin, Arrasateko San Andres auzoan txikiteoa egiten. JOSETXO ARANTZABAL

# "Zapatuetan eta domeketan lagunekin egiten dut txikiteoa San Andresen"

Jose Riviere ibarreko, Gipuzkoako eta Arrasateko erretiratuen elkarteetako presidentea da

Erretiratuekin Chipionara egindako bidaia aprobetxatuz Cadiz-Reala partidua ikusi zuen zuzenean

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Jose Riviere (1937), Terrassan (Bartzelona) jaio zen. Baina beste edozein tokitan izan zitekeela esan digu. "Gerra zibilagatik ihesi joan ziren gurasoak, eta Frantzia hegoaldetik Katalunia aldera heldu ziren", esan digu. Hilabete gutxirekin Bilbora joan ziren, eta bataiatu ondoren Arrasatera itzuli ziren.

Debagoiendar gehienek ezagutzen dute, martxoa ezkero Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteko presidente delako. Era berean, arrasatearrek ezagutzen dute Abaroa elkarteko presidente delako. Baina argitu digu beste presidentetza bat ere baduela: Debagoieneko erretiratuen elkartekoa, alegia. "Astegunetako ordu gehienak eta aste bukaerako batzuk hiru elkarteak koordinatzen ematen ditut", esan digu.

**BORONDATEZKO LANA**

Jose Rivierek orain dela 11 urte hartu zuen erretiroa, aurretik lan asko eginda. "15 urterekin hasi nintzen lanean. Ikasketak eta lana uztartu nituen. Ederlanen, Eskatun eta Condesan ibili nintzen. Huelvan ere eman nituen urte batzuk lanean. Gehienbat, elektrizitate lanak egin nituen", gogoratzen du.

Ordaindutako lana utzi zuenean, borondatezko lanarekin hasi zen. "Erretiroa hartu eta berehala Abaroako bazkide egin nintzen. Zuzendaritza batzordeko kide izan ondoren, presidente kargua hartu nuen iazko martxoan. Elkartea dinamikoa da, eta horrela jarrai dezan egiten dugu lan", kontatu digu. Orain dela bi aste adibidez, erretiratuak Chipionan (Cadiz) zeudela aprobetxatuz Cadizek eta Realak jokatu zuten partidua ikustera joan zireno. "Realaren kamisetak jantzi eta primeran pasa genuen. Giroa ikaragarria izan zen. Real zalea naiz, eta asko poztu naiz igoera lortu dugulako", esan digu.

Riviere Realeko bazkidea izan zen urte askoan semearekin.

**BELAUNEAN MIN HARTUTA**

Aisialdirako behar baino denbora laburragoa duela esan digu: "Lehen lana egiten nuelako eta orain erretiratuen elkarteekin...". Paseatzea asko gustatzen zaio, baina belauna minduta dauka eta aspaldian ez ditu paseatzeko zapatilak jantzi: "Sei kilometro egiten nituen egunero, baina eroriko batekin min hartu nuen".

Denbora laburra duen arren, zapatuetan eta domeketan lagunekin txikiteatzeko denbora izaten du. Hitzordu "sakratua" da. "San Andresen biltzen gara. Koadrilan 12 bat lagun gara. Berba eta barre asko egiten dugu", dio.

**ABUZTUAN, ETXEAN**

Abuztuan ez dauka oporretan joateko asmorik. "Uztailean Abaroa lekuz aldatuko dugu, eta abuztuan lana izango dut lokal berria antolatzen", dio. Dena den, irail bukaerarako itsas bidaia antolatuko dute Adriatikora.

Erretiratuek asko bidaiatzen duten galdetu diogu: "Nik gustuko dut. Osasunak, gogoak eta poltsikoak laguntzen didaten artean bidaiatzen jarraituko dut, eta lagunekin bada, hobeto".

### "Zuhaitz genealogikoa egin nuen eta Riviere abizenak jatorri frantziarra dauka"

Jose Riviereri zuhaitz genealogikoak egitea gustatzen zaio. Hiru egin ditu. Horietako bat Riviere abizenaren jatorria ezagutzeko. "Lleida parean dagoen Frantziako Pirinioetako herri baten du jatorria. Espainiako mugatik 30 kilometrora dago. Hango artxiboetan begira ibili nintzen, eta Riviere abizena topatu nuen 1730. urtera arte", dio. Bestalde, bere koinatuaren Errarte abizenari buruzko zuhaitz genealogikoa ere egin zuen. Abizen horren arrastoak topatu ditu 1525. urtera arte.

Zuhaitz genealogikoen bidez ezagutu zuen Rivierek informatika. "Datuak eta informazioa bilatzeko ezinbesteko tresna zen. Ikastaro batzuk egin nituen, eta han ezagutu nuen *Internet, korreo*, eta *e-mail* hitzak, besteak beste", esan digu. Informatika ikastaroan ikasitakoa praktikan ipintzen du erretiratuen elkarteekin. "Gipuzkoako elkartearen kontu guztiak mezu elektroniko bidez egiten ditugu", dio.

# Datuek dena diote.

**GOIENKARIA**
> 30.000 lagunek irakurtzen dute astero Debagoienean, papereko bigarren irakurriena baino 10.000 irakurle gehiagok.*
> Goienkariak 34.000 irakurle ditu Gipuzkoan.

**GOIENA TELEBISTA**
> 8.000 lagunek ikusten dute egunero Debagoienean, iaz baino 2.000 lagun gehiagok.*

**GOIENA.NET**
> 2010eko lehen lau hilabeteetan 218.280 bisita izan ditu; iaz baino 67.077 bisita gehiago denbora-tarte berean. **

# Eta guk gauza bakarra: eskerrik asko.

*CIESek 2010eko lehen lau hilekoan egindako neurketa. ** Google Analytics-en bidez egindako neurketa.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxebizitza salgai Matienan: hiru logela, sukaldea, jangela, komuna, ganbara handia eta balkoia. 650 82 35 41

**Altsasu.** Familiabakarreko etxea salgai Altsasun. Bajera, txokoa, lorategia, sukaldea, egongela, 3 komun eta lau gela. Prezioa adosteko. 609 78 96 86.

**Altsasu.** Etxe atxikia saltzen dut Altsasun, leku lasaian, Urbasara begira, 4 logela, 4 komun, sukaldea, egongola, txokoa eta lorategirarekin. 300.000 euro. 609 78 96 86 (Iker).

**Arrasate.** 110 metro koadroko duplex polita erdialdean, guztiz jantzita. Bi logela (hiru egiteko aukera), bi komun, egongela eta sukaldea. Guztiz berriztuta. 65 metro koadroko ganbara. Berehala bizitzera joateko aukera. Prezio oso interesgarria. 673 32 78 91

**Arrasate.** Bi etxebizitza salgai erdigunean. Pablo Uranga eta Iturriotz kaleetan. Bata bi logelakoa eta bestea hirukoa. 630 39 36 50

**Durango.** Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz jantzita. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (Elondo), sukaldea (Fagor elektratresnak eta junkers galdara ), gres, berokuntza (gas naturala),kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 229.000 euro. 607 71 53 53

**Elgeta.** 85 metro koadroko duplexa salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela beheko suarekin eta berogailua. Guztiz jantzia. 180.000 euro negoziagarri. Aukera aproposa gazte edo bikotearentzako. Zatoz ikustera. 685 75 18 91

**Elorrio.** Etxebizitza salgai Elorrion. Guztiz berriztua, ez dauka igogailurik. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta trastelekua. Oso eguzkitsua eta oso polita; erdijantzita, bizitzera sartzeko gertu. Etorri ikustera! Telefonoa: 617 78 71 65

**Etxarri Aranatz.** 90 metro karratuko bigarren eskuko pisua Etxarri Aranazko erdigunean, baina zonalde lasaian. 1. esk. Erabat jantzita. 3 argi, aluminiozko leiho bikoitzak, beheko sua, berokuntza eletrikoa (gaueko tarifa). Eskailera gastuak 30 euro urtean. 3 logela, sukaldea, egongela jangela, komuna, despentsa eta 20 metro karratuko trastelekua etxabean. Prezioa adosteko. 636 15 85 35 (Bitori)

**Lana.** Etxeak ditu: 3 logela, egongela (beheko sua du), sukaldea (sutegi ekonomikoa berria), komuna,ganbara eta ukuikuak. Teilatua oso ongi dago. Baratzeak 150m ditu eta era ekologikoan landu da. Inguruak mendi eta naturazaleentzat ezin aproposagoak. Gasteiztik 45 minutura eta Lizrratik oso gertu. Egokia asteburu eta oporraldietarako. Ikustea merezi du. Deitu 699 24 86 99 zenbakira

**Laredo (Kantabria).** Izugarrizko bistak dituen pisua hondartza ondoan. Urbanizazio pribatuan, berdegune askorekin, haurrentzako jolasguneak, tenis zelaia, saskibaloi zelaia, autoa garbitzekoa... Puntaleko zonaldean kokatua. Hall zabala, egongela eta jangela zabalak, bi bainugela osatu, 4 logela bakoitza bere armairu enpotratuarekin, sukaldea, elektrogailu berriekin osatua, ur beroa eta gas naturalarekin dabilen berogailua. 2 igogailu eta atezain zerbitzua. Ezin obeto dago bizitzera sartzeko. Partikularra. 6900715 72 .

**Oñati.** San Anton kalean estreinatzeko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean eta jantzita. Trastelekua eta patioa ere baditu. 665 71 77 96

**Oñati.** Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren pisua. Prezioa: 228.100 euro . Garajea aukeran. 945 22 26 62 edo 615 70 86 04

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitza salgai. 96 metro koadro gehi garaje itxia gehi ganbara. Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta bi terraza. 634 43 78 19

**Santo Domingo de la Calzada (Errioxa).** Bañaresko kanpinean. Bi gela, sukaldea, komuna eta egongela. 678 62 40 99

**Tolosa.** Lau logela, bainugela, sukaldea, sala, eta terraza konpartitua. Gela guztiak, bainugela barne leihodunak dira. Etxearen aurrealdean jardina du eta atzekaldean nahi denerako erabilgarri den terrenoa, guztira 500 m. Oso eguzkitsua. Tolosan bertan kokatua (espunien ondoan). Harremanetarako telefonoa: 606 96 64 32.

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi)Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m2).Promotorearen bidez zuzeneko salmenta.Sukaldea eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Garajea eskuragarri. Premiazko salmenta. 658 72 92 88

**Tolosa.** Tolosako Berazubi auzoan etxebizitza salgai. 4. solairua, igogailuarekin eta ganbararekin. Gela guztiak kanpoaldera begira daude. 679 44 05 27.

**Zestoa.** Etxebizitza ia berria (6 urte) salgai Zestoan. 85m2, 3 logela, 2 komun, sala, sukaldea, trasteroa eta garaje itxia (18m2). Eguzkitsua eta oso egoera onean. Mugikorra: 679 80 91 90 eta 628 06 94 12

**Zornotza.** Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea! Telefonoa: 695 70 18 58

### 102. EROSI

**Segura.** Seguran etxebizitza bila nabil. Gehienez 190.000 euro, gutxienez 2 logela eta balkoiarekin. Argitsua balitz primeran. 652 75 16 23

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza eguzkitsua ematen da errentan San Andresen.Erdigunetik bost minutura. Sukalde handia, egongela, komuna, bi logela eta ganbara. Igogailuarekin. Bikote batentzat aproposa. 650 40 19 95 edo 680 37 90 34

**Cadizen**, Puerto Santa Marian, Valdelagrana, Valdemar urbanizazioa. Hondartzako lehenengo ilaran etxebizitza ematen da errentan. Uztail osoan eta abuztuko lehenengo hamabostaldian. Bi logela, aparkalekua, igerilekua, tenisko pistak, aire girotua. 677 50 39 18

**Cadiz (Conil).** Apartamentua alokagai Conilen uztailean, igerilekua eta garajeagaz. Telefonoa: 600 59 65 38

**Cadiz (Conil).** Uztailean Conilen apartamentua alokagai, hondartza parean. Telefonoa: 653 73 34 57

**Gasteiz.** Ikasleentzat pisua alokatzen da Gasteizen. Interesatuek, deitu 945 30 01 30 telefono zenbakira.

**Irurtzun.** 3 logela, bista ederrak eta herri erdian. 600 38 74 00.

**Marina D'Or.** Oropesa del Mar (Castello). Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea, bi komun eta terraza. Aparkatzeko plaza eta igerilekua. Hondartzako lehen lerroan. 685 75 62 51 edo 652 73 94 88

**Otxandio.** Hiru logelako etxea alokagai. Guztiz jantzita. Telefonoa. 945 45 00 52

**Peñiskola (Castello).** Apartamentuak errentan. Hamabostaldiak. Bi logelakoak. Guztiz jantziak eta hornituak. Hondartzatik 50 metrora. 616 95 04 00 edo 948 41 00 79

**Peñiscola.** Etxebizitza alokatzen da. Abuztuaren 16tik aurrera, itsasertzean. Igerilekuak, toboganak, tenis zelaia,... Interesatuek, deitu 943 65 42 44 edo 690 06 76 45 telefono zenbakietara.

**Peñiscola.** 7 lagunentzat egokitutako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean, balkoia, haize egokitua, igogailua, parkina eta bi igerileku. 617 42 89 52

**Ribadesella (Asturias).** Udarako etxebizitza ematen da errentan. Bost pertsonarendako egokia. 80 € egunean. 695 78 22 47

**Torrevieja (Alacant).** Atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik gertu. 4-6 pertsonarendako lekua. Bi logela, terraza, solarium pribatua eta elkarteko garaje eta igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

**Tolosa.** Etxebizitza alokagai Tolosan. Sukaldea, egongela, bainugela, 4 logela eta terraza konpartitua. Harremanetarako telefonoa: 606 96 64 32

**Vieux Boucau (Landak).** Apartamentua alokatzen dot udan Landetan, Vieux Boucaun, Boucanier urbanizazioan. Igerilekua, hondartza. Apartamentuak denetik dauka, labadora, telebista¶ Leku bikaina. Harremanetan jartzeko telefonoak: 94 673 27 69 eta656 75 95 37. E-posta: *joseba@erroteta.com*

**Zarautz.** Estudio bat alokatzen dut egonaldi motzak pasatzeko, asteburuak, asteak, hamabostaldiak. Sukaldea guztiz hornitua du, egongela txiki bat, logela bat eta bainu bat ditu. Dena berri berria. Zarautzen. 628 20 30 37.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 609 38 86 47

**Bergara.** Etxebizitzaerrentan hartuko nuke Bergaran. 699 09 46 26

**Donostia.** Donostian alokatzeko pisu bila gabiltzan bikotea gara. Ahal izanez gero Antigua inguruan. 628 04 15 26

**Eskoriatza.** Eskoriatzan ikasten dugun 3 neska gara eta hurrengo ikasturterako (2010ko iraila - 2011ko ekaina) pisu bat alokatu nahiko genuke. Pisuak 3 logela izan beharko lituzke eta ez litzaiguke inportako etxeak 4 logela izatea eta beste norbaitekin konpartitzea. Deitu 635 75 97 10 telefonora.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 655 71 77 85 edo 943 79 56 64

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. 619 78 63 41

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 663 72 37 44

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. 630 71 35 83

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 619 78 63 41

**Arrasate.** Arrasatearra pisukide bila. Erdialdean eta egoera onean. 300 euro gastuak barne. 606 74 42 37

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da uztail erditik aurrera. Bertan langileak bizi dira. 653 71 44 57

**Bergara.** Logela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 230 euro hilean. Natalia. 670 85 86 68

**Bergara.** Logela ematen da errentan. Nahiago dugu kanpotarra izatea. 655 71 41 24

**Eskoriatza.** Pertsona arduratsua behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxe berria da eta erdigunean dago. 650 82 83 48

**Iruñea.** Uztailean sartzeko, neska euskalduna eta langilea behar dugu pisua osatzeko Alde Zaharrean. Oso merkea da, hilero 160 euro. Argitsua eta txukuna: 616 71 69 66

**Oñati.** Logela ematen da errentan. 688 61 57 79

**Oñati.** Neska gaztea naiz eta neska baten bila nabil etxea osatzeko uztailaren 1etik aurrera. 677 37 04 81

**Tolosa.** Tolosako pisu bat partekatzeko pertsona behar da. Oso leku onean dago eta prezio onean. 627 98 53 76

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** 27 metro koadroko garajea salgai Obenerrekan. Ate automatikoarekin. Bi auto sartzeko aukera. Prezioa aztergai. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Anagatik galdetu. 662 34 77 77.

### 202. EROSI

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. 647 24 40 54

### 203. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Garaje bat alokatzen da Landako 7 kalean, hilean 40 euro. Telefonoa: 94 681 81 51

**Gasteiz.** Garajea alokagai Zaldiaran Plazan, kotxe txiki batentzat. 50 euro. Harremanetan jartzeko deitu: 647 26 28 27

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garaje itxia hartuko nuke errentan Arrasate pasealekuan edo San Andresen. 652 77 13 77

**Azpeitia.** Garaje bat nahiko nuke errentan hartu karabana bat gordetzeko. Berdin zait jabearekin konpartitzea. Gehienez 50 euro hilabeteko ordainduko nituzke. Interesatuak mesedez deitu 659 82 94 40 zenbakira.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Abadiño.** Neska euskalduna uztaileko goizetan umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat. 645 00 89 13

**Altsasu.** Haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest, goizez, astelehenetik ostiralera. Telefonoa: 617 61 71 38.

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618 00 08 28

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. 647 16 40 49

**Arrasate.** Gizona gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile lanetarako. 634 84 41 94

**Arrasate.** 20 urteko mutila gertu eraikuntzan, garbiketan edo zerbitzari lanetan aritzeko. 619 78 63 41

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618 00 08 28

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetan jarduteko. 659 37 41 95

**Arrasate.** Emakumea, 51 urtekoa, gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 943 79 60 89

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu edo etxeak garbitzeko gertu. 665 72 57 64

**Arrasate** edo Bergara. Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 943 53 27 17 edo 616 84 13 07

**Arrasate.** Gizona pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean egoteko prest. 697 54 28 76

**Arrasate.** Debagoiena. Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia onak. 638 93 11 48

**Arrasate.** Tabernako zerbitzari moduan urte askoan ibilitakoa naiz. Herriko jaietan edo astebukaeretan lan egingo nuke Debagoienan. Edorta. *edortamendi@yahoo.es* 617 89 41 03

**Arrasate.** Neska batek lana egingo luke orduka. 677 73 79 59

**Arrasate.** Arrasateko mutil euskalduna gertu basoak garbitzeko: belarra, narrak... Joxe. 653 01 83 43

**Arrasate.** Emakume bat lan desberdinetan aritzeko gertu. 695 75 42 45

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. 634 43 28 87

**Arrasate.** 18 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. 678 02 04 36

**Arrasate.** Mutila gertu zerbitzari, garbiketa, iturgin laguntzaile edo peoi lanetan jarduteko. 671 84 71 71

**Arrasate.** Emakume arduratsu, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 660 13 94 95

**Arrasate.** Emakume arduratsu, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 646 16 53 87

**Arrasate.** Neska ume zein nagusiak zaintzeko edo elkarteak garbitzeko gertu. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dorleta. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

**Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaindu edo etxekolan eta garbiketak egiteko debagoienan. 678 80 11 54

**Arrasate.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. 679 04 42 68

**Arrasate.** 34 urteko neska brasildarra naiz eta Mari daukat izena. Etxeak garbitzeko prest nago. Ez daukat arazorik ordutegiarekin eta lehenago ere etxeak garbitzen aritu izan naiz. Nagusiak zaintzeko ere prest nago. 688 80 21 29 edo 943 79 51 28

**Arrasate.** Neska gertu elkarte, atari edota tabernak garbitzeko. 699 60 91 90

**Arrasate.** Arrasate edo Bergara. Emakumezko batek etxeko lanak egingo lituzke. 615 72 15 17

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu edo etxeak garbitzeko gertu Debagoienan. 665 72 57 64

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943 53 33 92

**Aretxabaleta.** Aretxabaleta edo inguruetan bertako neska gaztea eskeintzen da uztailean, ordutegi arazorik gabe, haurrak zaintzeko. 663 73 49 95

**Aretxabaleta.** Aretxabaletako neska gazte arduratsua uztailean haurrak zaintzeko prest Debagoienan. 696 44 43 99

**Azpeitia.** Neska bat eskaintzen da partikularrak emateko, umeak zaintzeko edota denda batean lan egiteko. 665 75 68 73

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606 42 64 14

**Azpeitia.** 18 urteko neska euskalduna, haurrak zaintzen espezializatua dagoena, udan goizez haurrak zaintzeko prest dago. Interesatuak deitu: 665 71 08 96.

**Beasain.** Orduka lan egingo lukeen neska naiz: haurrak nahiz adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan. Asteburuetan ere lan egiteko prest nago. Esperientziduna naiz. 649 07 31 33

**Bergara.** Neska eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. 677 73 79 59

**Bergara.** Paperak dituen emakumea pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 606 64 16 09

**Bergara.** Emakumea gertu haurrak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 610 34 97 88

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 28 12 edo 943 76 29 52

**Bergara.** Emakumea pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu. Geriatria eta elikagaien manipulazioan titulorduna. 650 62 12 94

**Bergara.** Nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu goizez eta gauez. Deitu 609 23 39 52 telefono zenbakira.

KOROSTI INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ozaeta 105 $m^2$. Berritua.
- Bidekurutzeta. 85 $m^2$. Berritua.
- Artekale 60 $m^2$. Berritua. 153.258 €.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Masterreka 92 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Bidekurutzeta 65 $m^2$. Berritua. Igogailuarekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA **GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- San Lorentzo, 78 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

**Bergara.** Harakina gertu lan egiteko, hezurgabetzen esperientziaduna. Beste lan mota batzuk egiteko ere gertu. 610 91 33 40

**Bergara.** Lan bila dabilen emakumea naiz: pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 695 75 42 45

**Bergara.** Ohitura oneko gizona naiz, eta lan bila nabil: pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 697 54 22 45

**Bergara.** Ekainean eta uztailean eskolak partikularrak emango nituzke, lehen hezkuntzatik batxilergora arte. 671 41 22 17

**Bilbo.** Andra euskaldun bat, sukalde, plantxa eta etxeko lanak egiteko. Bilbon. 696 47 66 48 / 609 40 19 62. 14:00 16:00 edo 19:00 21:00 bitartean.

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergara edo Arrasaten. 650 23 34 98

**Debagoiena.** Emakume gazteak nagusiak edo haurrak zainduko lituzke. 606 72 28 76

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. 649 71 95 21

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko gertu emakumea. 649 72 00 23

**Debagoiena.** Neska euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Arratsaldetan, 13:00etatik aurrera libre nago. Interesa baduzue deitu zenbaki hauetara: 618 09 47 87 edo 943 78 15 10

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. Deitu 666 08 58 49 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. 696 48 42 50

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 689 93 58 41 telefonora.

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. 696 48 42 50

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 689 27 94 21 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. 662 08 22 03

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Umeak zaindu, garbiketa lana edo jatetxeetan lan egiteko. 600 24 58 27

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila gertu nagusiak zaindu edo zerbitzari lanetan jarduteko. Ordutegi malgua. Deitu 646 07 79 60 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko eta astebukaeretan lan egiteko gertu. Deitu 699 60 91 90 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izateko prest. 650 67 16 47

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, bertan bizi izateko edo kanpoko langile gisa. 689 88 97 66

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Hilean 250 euro. Deitu 14:00etatik 15:00etara edo 17:00etatik 19:00etara. 943 53 29 18

**Donostia.** 22 urte ditut eta lan bila nabil Donostian , uztailerako eta abuzturako. haurrak zaindu, klase partikularrak, edota ostalaritza. Idatzi mezu bat: *udakolana@gmail.com* helbidera.

**Donostia.** Neska euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko, irailetik aurrera goizez ere. Baita etxeko lanak egiteko ere. 665 71 99 93. Ane

**Durango.** 20 urteko Durangoko neska, ingeniaritza ikaslea eta *Advanced* tituluduna, 16 urtera artekoentzat partikularrak emateko zein ume txikiak zaintzeko prest, ekaina uztaila bitartean (abuztuan ez). Telefono zenbakia: 652 73 23 70

**Durango.** Durangaldeko andra umeak eta edadetuak zaintzeko prest. Zaintza ordukakoa ere izan daiteke edo laguntzaile moduan etxe edo ospitaletan. Telefonoa: 649 13 53 81

**Durango.** Pertsona bat behar da, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, egun osoan. Autoa behar da. 618 82 20 48.

**Durango.** Emakumea pertsona edadetuak zaintzeko prest. Ines. Telefonoa: 699 74 57 23

**Eibar.** Neska euskalduna eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Baitaetxeko lanak egiteko ere. Eibar edo inguruetan. 618 81 40 64. Ainhoa.

**Elorrio.** Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan (astelehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest. Orain hasteko edo irailetik aurrera. Haur Hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa eginda daukat, eta gaur egun Hezkuntza Bereziko ikasketak egiten ari naiz. Interesa baldin baduzu, jarri kontaktuan. 688 64 06 04 (arratsaldetan deitu).

**Elorrio.** Neska euskalduna abuztuan haurrak zaintzeko edota partikularrak emateko prest. 600 36 13 81.

**Etxarri Aranatz.** 41 urteko emakumea Etxarri Aranatzen lan egiteko prest. Telefonoa: 679 86 84 13

**Lasarte-Oria.** Neska eskaintzen da haurrak edo helduak zaintzeko. Ekainean goiz edota arratsaldez (goizez bada hobe). Telefono zenbakia: 607 88 13 91

**Lezo.** Neska euskalduna (EGA) eskaintzen da haurrak zaintzeko. Arduratsua eta langilea, aurretik ere haurrak zaintzen lan egina. Deitu: 667 23 93 72 telefonora.

**Oñati.** Umeak zaintzen ditut uztailean; esperientzia handia. Neska euskalduna naiz, ikaslea. 651 70 85 13

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. 635 70 07 92

**Oñati.** Neska gaztea umeak zaintzeko edo dendan laguntzaile modura edo tabernan lan egiteko prest, uztailaren 1etik aurrera. 677 37 04 81

**Tolosa.** Tolosako bi neska gara, ikasleak eta arduratsuak. Udan haurrak zaintzeko prest gaude, uztaila edo abuztuan eta goizez edo arratsaldez. 21 urte eta esperientziarekin. 675 71 55 97

**Tolosa.** Udaran umeak zaintzeko prest egongo nintzateke. Esperientzia dun neska euskaldun bat naiz. 680342358

**Tolosa.** 29 urteko neska lan bila dabil, ume zaintzen, etxeak garbitzen, tabernan... Denetan esperientzia. 635 70 22 50

**Zarautz.** 18 urteko neska zarauztarra naiz eta ekaina eta uztailerako lan bila nabil. Umeak zaintzeko eskaintzen naiz Zarautzen bertan edota inguruko herrietan. Esperientzia pixka bat badut bi umeekin eta nire burua arduratsua ikusten dut. Edozein lanerako ordutegira irekita nago. Deitu 652 76 25 47 telefonora.

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz, asteburuetan ere lan egiteko prest nago, edozein lanetarako: jardinero, mahastietan eta abar. 658 73 08 08

**Zumaia.** Neska arduratsua eskaintzen da udan lan egiteko ekainaren 1etik aurrera. Umezain, tabernari gisa edota berdin zait zeinlanetan aritu. Lanerako gogo handiarekin! 688 63 33 42 (Leire)

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**DBHko eskolak** jasoko nituzke. 18:00etatik aurrera deitu 605 26 24 62 telefonora.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Aretxabaletan zein inguruetan neska gaztea prest dago uztailean 15 urte arteko gazteei eskola partikularrak emateko (euskara, ingelesa, matematika...). 663 73 49 95

**Arrasate.** Esperientziadun sukaldaria zure etxean bertan janaria prestatzen irakasteko gertu. 650 40 29 69

**Arrasate.** Neska euskaldun esperientziaduna prest ekainaren 3tik uztailaren 31ra arte 2. batxilergorarteko eskola partikularrak emateko. Joana. 669 20 63 21

**Arrasate.** Debagoienan 21 urteko neska euskaldun eta ingeniaritzako ikaslea uztailean klase partikularrak emateko prest. Deitu: 686 28 76 80

**Arrasate.** Ingeniaritzako ikaslea gertu eskola partikularrak emateko, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haurrei. Deitu 943 76 50 97 edo 678 47 43 54 telefono zenbakira.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Deitu 654 94 87 26 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Udarako klase partikularrak. 6 12 urte arteko umeei udan klase partikularrak emateko prest. Eskoletan esperientzia dut. Deitu 635 75 05 26 telefonora.

**Donostia.** Panderoa, kainabera eta txaramelak. Asteazkenero 19:30etik 20:30era, Donostiako Arrano Beltza Euskal Tokian (Ikatz kalea, 10) Informazio gehiago: *arranokoikastaroak@gmail.com*

**Donostia.** Ingeniaritzako ikaslea naiz, eta eskola partikularrak ematen ditut udan: zientziak, letrak eta hizkuntzak. Deitu 670 52 54 13 telefono zenbakira.

**Donostia.** Ingeles irakasle tituluduna: klase partikularrak edota taldekoak emango nituzke, errekuperaketak, mintza praktika, berrikusketa... Ikaslearen beharrak asetzeko plangintza pertsonalizatuak (maila, materiala eta ordutegia). 943 47 20 29

